

Eskuari esku, erabakitzeke eskubidea aldarrikatuz



Gure Esku Dagok erabakitzeke eskubidearen aldeko giza katea egingo du domekan. Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko ditu eta legebiltzarraren parean amaituko da. Bidean Durangaldeko hainbat herri zeharkatuko ditu. • 2-3

“Inoizko urterik onena izan da eta ilusio handiaz gaude”



Ander Zenitagoia Arbo
Iurretako futbol taldeko kapitaina • 20



Joan zen domekako euriteek 80.000 euro inguruko kalteak eragin dituzte Atxondon

Atxondo | Euriteek igerilekuan eragin dituzte kalterik handienak, baita Santixa, Axpe eta Apatako lau baserritan ere • 6

Lau salaketa jarri dituzte Ertzaintzan Neberondoko jazarpenengatik

Durango | Emakume talde batek protestara deitu zuen astelehenerako, kirola askatasun osoz egiteko aukera bermatzea exijitzeko.

4. orrialdea



HONDARTZARAKO AULKIA (Handia) 25€

HONDARTZARAKO OHEA 33€

HONDARTZARAKO AULKIA (Ertaina) 19,90€

HONDARTZARAKO AULKIA (Txikia) 16€

Maiatzaren 17tik ekainaren 20ra arte

 **EROSKI**
Abadiño zurekin



Angel Oiarbide Ruiz
Gure Esku Dagoren
bozeramailea
Idiazabal | 1974

“Aldarri anitzen mobilizazio kolektiboa izango da ekainaren 10eko giza katea”

Donostia eta Gasteiz lotuko dituen katea aro berri baten irekieran mugarri bat izan daitekeela uste du Angel Oiarbidek

GIZA KATEA • JOSEBA DERTEANO

Pentsiodunen kexetan, Emakumearen Nazioarteko Eguneko aldarri-kapenetan zein Altsasuko gazteen kasuan ezaugarri komun bat ikusten du Angel Oiarbide Gure Esku Dagoren bozeramaileak: erabakitze nahia. Horrela, erabakitze eskubidearen alde ekainaren 10erako deituta dagoen giza katea aldarri horien eta beste batzuen elkargune izan daitekeela uste du.

Lau urte joan dira lehenengo giza katetik hona. Zer aldatu da ordutik? Pauso asko eman ditugu eta sentitzen hasi gara zer egin genezakeen elkarregaz aritzen bagara. Gure Es-

ku Dago jarrera bat da. Herritarrak ahalduz eta konplizitateak sortzen joan gara. Gaur egungo testuinguruan ekainaren 10eko mobilizazioa aukera paregabea da. Badaude herri honetan ziklo bat ixteko eta berri bat irekitzeko lagungarri diren osagaiak. Aro berri horren lehendabiziko mugarria izan daiteke ekainaren 10a. Testuinguru berezi batean eragiteko gaitasuna duen mobilizazioa izan daiteke. Hori da ekainaren 10eko giza katearen garrantzia.

Giza kateagaz batera, aurtengo beste lan ildoetako bat erabakitze eskubidea edukiz janzea izan da, erabakitze arrazoiak pilatzea.

Beste sakonera eta dimentsio bat eman gura izan dizkiogu. Zergatik eta zertarako erabaki gura dugu arlo desberdinetan? Galdera horri erantzun gura izan diogu. Horretarako antolatu ditugu mintegiak arloz arloko adituekin. Ondoren, herriz herri prozesu parte-hartzaileak egin dira. Ariketa oso garrantzitsua izan da. Arrazoi horiek izango dira ekainaren 10ean gu denok lotuko gaituztenak Gasteizko Legebiltzarragaz, estatus politikoaren inguruko eztabaida instituzionala ematen ari den Euskal Herriko erabaki guneetariko bategaz.

Eta giza katearen azken muturretik, Gasteizko Legebiltzarraren ataritik,

zer izango da Gure Esku Dagotik zabalduko duzuen mezua?

Estatus politiko berriaren inguruan adostuko den testuan aintzat hartu behar dela herri honen errealitatea. Legebiltzarreko hiru alderirik bozkatuenek erabakitze eskubidearen aldarria zerematen euren programetan. Legebiltzarrean %75eko ordezkariak dute. Beraz, adosten denak errealitate horregaz sintonian egon beharko luke.

Madrilen beste sintonia bat erakutsi dute orain arte.

Demokraziaren kontrako kultura atzerakoia jorratzen ari diren horiekin ezin gara Gasteizen adostasun batera heldu. Horregatik,

ekainaren 10ean Legebiltzarragaz bat egingo dugu, herritarren borondatea eta instituzioen adostasuna uztargarriak izan daitezen une honetan.

Ekainaren 10ean, esango denak ez ezik, erakutsiko denak ere badu garrantzia; kantitateak, alegia.

Begira ondoko kasuei: pentsiodunnei, martxoaren 8koari eta Altsasuko gazteen kasuari. Hiru mobilizazio horiek Euskal Herrian azken belaunaldietan egin diren handienak dira eta hirurak elkar lotzen dituen hari bat badagoela uste dugu. Hari hori erabakia da, erabakitze nahia. Nork erabakitzen du gure gorputzei buruz? Nork erabakitzen du gure pentsioei buruz? Non eta zein irizpideren arabera epaitzen dira Altsasuko gazteak? Ekainaren 10ekoa aldarri anitzen mobilizazio kolektibo bat izango da. Feminismoaren aldarria, pentsiodunena, euskal justiziaren aldekoa, euskal hezkuntzaren aldekoa, Kataluniagaz elkartasuna adierazten duena... Hori guztia batuko da. Aro berri baten irekieran mugarri bat izan daitekeen mobilizazioa da.

Europaraino helduko den mobilizazioa izango ote da?

Katalunian gertatu dena ez da mehatxu bat espainiar estatuarentzat, aukera bat baino. Europarentzat ere aukera bat da. Gaur inork ezin du jakin 20 urte barru Europa nolakoa izango den. Baina Europak badaki etorkizuneko haizeek demokrazioan gehiago sakontzea dakartela. Paradigma kurioso bat ematen da European. Montenegro, Serbia, Kosobo... gerra odoltsuen ondoren herrialde horiek European parte dira gaur egun. Hori horrela izanda, etikoki sostengatu ezin dena da modu baketsuan eta demokratikoan bere etorkizuna erabaki gura duen herriari bizkarra ematea. Hori zintzilik duen ikasgai bat da. Katalunia eta Katalunian gertatzen dena aukera bat dira Europarentzat horretan sakontzeko. Baina paradigma hori ez da bere kasa emango. Bultzatu egin behar dugu. Herritarroi dagokigu arduraz jokatzeko eta aukera horiek sortzea.



2014an egin zen Durango eta Iruñea lotu zituen lehenengo giza katea. Oihaletan idatzitako mezuekin erabakitze eskubidea josi zuten 2015ean.

Azken urte bietan herri galdeketak egin dira, tartean Durangaldeko herri askotan.



IÑAKI
GORRITXATEGI

“Apuntatu gara, eta familia guztia joango gara”

DURANGO • J.G.

Orain lau urte Gure Esku Dago dinamikak antolatutako giza katean Iñaki Gorritxategi izan zen Landako Gunean ekimena hasi zuena. 1937ko martxoaren 31ko Durangoko bonbardaketaren lekukoa izan zen Gorritxategi, eta horregatik aukeratu zuten giza katea zabaltzeko.

Orain lau urteko eguna zelan gogoratzen duzu?

Emozio handiko eguna izan zen. Gainera, herri guztian izandako erantzuna ikustea handia izan zen. Gure familietatik denok joan ginen. Egun ikusgarria izan zen. Giza kateari hasiera ematea proposatu zidatenean zalantza izan nuen, baina azaldu zidaten bonbardaketaren lekuko legez aukeratu nindutela eta baiezkua eman nuen.

Domeka honetan parte hartuko duzu?

Bai, jakina. Apuntatu gara, eta familia guztia joango gara. Bartzelonan dagoen ilobak ere deitu dit badatorrela esateko. Zapiak jasota ditut, eta dena prest dugu. Joateko pozik gaude.



MARIBI
ESTANKONA

“Asko borrokatu beharko dugu erabakitze eskubidea lortzeko”

DURANGO • J.G.

Maribi Estankona ere orain lau urteko giza kateko hasierarako aukeratu zuten. Kurutzia-ga Ikastolako sorrerako andereñoa izan zen Estankona. Gaur egun jubilatuta dago, eta giza katera joango da senarragaz.

Zelan gogoratzen duzu 2014an egindako giza katea?

Oso hunkigarria izan zen. Gaur egun, agian mentalizatuago gaude, edo gaia gehiago landuta gaude. Baina sasoi hartan berria zen, edo ez hain ezaguna. Giza katearen hasieran jartzeko esan zidaten eta ardura handia izan zen.

Honelako ekimenez zein garrantzia dute zuretzat? Beharrezkoak dira?

Bai, orain eta gero ere, asko borrokatu beharko dugu erabakitze eskubidea lortzeko.

Aurten ere joango zara?

Senarragaz joango naiz, bai. Andra Mariko postuan izena eman eta zapia jaso behar dela esan didate.



JOANA
ALONSO

“Ikuspegi desberdinen artean egindako saretzea inportantea da”

ZALDIBAR • J.D.

2014an giza kateko partaide izan zen Zaldibarko Gure Esku Dago taldeko Joana Alonso. Domekan ere katean egongo da, baina, la-
nean, dena ondo irten dadin.

Zelan gogoratzen duzu 2014ko katea?

Orduan parte-hartzaile moduan egon nintzen, Abadiñon. Oso oroitzapen onak ditut. Giro itzela egon zen.

Domekakoan gertuago egongo zarete

Bai, eta beste herri batzuetatik Zaldibarrera etorriko dira. 40 bat autobus etorriko dira. Potenteagoa izango da eta ikuspegi horregaz ibili gara lanean. Jai giroa bai, baina ardura apur batez ere bai. Giza katearen osterako jaitxo bat prestatu dugu eta ea giro polita sortzen den.


Zergatik erabaki?

Oinarrizko eskubidea dela deritzot. Gure Esku Dago dinamikaren bidez urte hauetan ikuspegi desberdinen artean eman den sare-tzea inportantea da.

HERRIETAKO EGITARUAU

- **ABADIÑO:**
10:00 Katera trikitilariekin joateko aukera Muntzaratzik.
- **BERRIZ:**
10:00 Musika Olakuetan: Seiurte, Homoaskeak, Etxe, Dana eta Eneritz eta bertsolariak.
- **DURANGO:**
13:00 Amaiera ekitaldia Landako Gunean plazan: dantza, musika...
- **IURRETA:**
12:30 Eskola umeen abesbatza eta trikitilariak Askondon.
- **MALLABIA:**
14:00 Bazkaria eta erromeria: eMePebo5t.
- **ZALDIBAR:**
13:00 Poteoa Artiako autobus geltokitik hasita. Ostean, bazkaria udaletxeko plazan.
- **ZORNOTZA:**
12:30 txosna zabalik Zelaia parkean
13:00 'Ederto' txistulariak eta 'Soinutxikie' trikitilariak
14:00 Batek Daki (erromeria) Zelaian.
Euban: Musika giza katearen aurretik. Ostean, herri bazkaria.

DURANGALDEKO MAPA



Kilometro bakoitzeko herri bisitariak

74: Mallabia, Eibar	87: Abadiño
75: Ermua	88-89-90: Durango
76-77: Ondarroa	91: Iurreta, Garai
78: Amoroto, Gizaburuaga, Ziortza-Bolibar, Aulesti, Munitibar	92: Atxondo, Mañaria, Izurtza
79: Markina-Xemein	93-94 Gernika-Lumo
80: Etxebarria, Ispaster, Berriatua	95: Euba
81: Zaldibar	96-97: Mungia
82: Ea, Ajangiz, Arratzu, Ereño, Gautegiz-Arteaga, Kanala, Kortezubi, Murueta, Nabarniz, Elantxobe, Ibarrangelu, Erri-goiti, Mendata, Morga, Foru, Gorozika, Muxika-Ibarruri	98: Arrieta, Gamiz-Fika, Gatika. Maruri-Jatabe, Meñaka, Fruiz, Laukiz
83: Berriz	99-100: Zornotza
84-85: Elorrio	101: Areatza, Zeanuri, Arantzazu, Artea
86: Bakio	102: Dima
	103: Igorre

Domekan 12:00etan hasi eta 12:30ean amaituko da giza katea. Guztira, 201,9 kilometro izango ditu eta horietako 29 zaintzeko ardura dute eskualdeko herriek. Mallabitik —Areitio gainetik— Zaldibartik eta Berriztik igaro ostean, Abadiñoko Traña-Matienan herrigunera sartuko da. Laubideta kaletik sartu eta Zubibitartetik aterako da Durangorantz. Durangon Olleria kalea, Landako Etorbidea eta Fray Juan Zumarraga kaleak zeharkatuko ditu eta Iurretan Maspe kaletik igaroko da. Errepide nazionalera irten eta Zornotzarantz joango da.

Durangaldeko herri horietako biztanleak herrian bertan egongo dira. Eskualdeko gainerako herriak, aldiz, mugitu egin beharko dira egokitu zaien kilometrora, kasu askotan autobusez. Denak Durangaldean egongo dira. Otxandio da salbuespena. Arabako Gopegin (Zigoitia) egongo dira otxandiarak.

Neberondon eta Larrinagatxun sexu jazarpenagatik lau salaketa egon dira, eta beste bi erasoren berri ere badute

Emakume kirolari batzuek deituta, Cristina Petite eta June Arbeo tartean, 250 bat lagunek elkarretaratzea egin zuten astelehenean Durangon

DURANGO • ARITZ MALDONADO

Neberondo eta Larrinagatxu in-guruetan egon diren jarraipen eta sexu jazarpenak salatzeke, 250 bat lagunek elkarretaratzea egin zuten astelehenean. Emakume kirolari talde batek deitu zuen mobilizazio- ra, aipatutako zonaldeetara korrika edo paseoan joaten baitira emakume asko. Besteak beste, Cristina Petite atleta beterranoa eta June Arbeo gaztea zeuden pankartari eusten –biek irakurri zuten adierazpena–,

keta jarri dituzte Ertzaintzan azken asteetan. "Emakume izate hutsagatik kirola egitea arriskutsu bilakatu daitekeela salatzeke batu gara", irakurri zuen Arbeok euskaraz. "Bakarririk edo binaka gindoazela baliatuz, autoagaz jarraitu eta sexualki jazarriak izan gara, gutxienez gure herriko lau emakume. Jarrera hau errepikakorra izan da eta luzaroan gertatu da, gainera", gehitu zuen. Ertzaintzak gizon bat identifikatu zuen orain aste bi.

"Autoagaz jarraitu eta sexualki jazarriak izan gara, gutxienez gure herriko lau emakume"

eta aipagarria da kirolari gazte ugari ikusi ahal izan zirela. Kirola "askatasun osoz" egiteko eskubidea exijitu, eta hori "guztion ardura" dela aldarrikatu zuten.

Kirola egitean sexu jazarpena eta jarraipenak izateagatik lau sala-

Beste eraso bi

Beste eraso biren berri ere izan dute, salaketarik egon ez den arren. "Salatu egin behar dela esaten digute, eta badakigu garrantzitsua dela, baina hau ez da beti erraza izaten, batez ere salaketa jartzerakoan oztopoak ipintzen bazaizkigu edo gure kontakizuna zalantzan jartzen bada", adierazi dute.

Aurrerantzean, "elkar babesteko eta erantzun kolektiboaren aldeko hautua" egingo dutela nabarmendu zuten.



Kirola askatasunez egiteko eskubidea aldarrikatu zuten asteleheneko mobilizazioan.

Gorka Fraile presoak gogoan eduki dute Durangoko kaleetan eta errugbi-zelaian

Joan zen zapatuan Fraileren etxeratzea eskatu zuten 200 lagunek, mosaiko batez



Fraileren taldekide izan ziren DRTko beterranoak, Arripausetan, zapatuan.

DURANGO • M.O.

Gorka Fraile presoak 20 urte daratza kartzelan, eta joan zen zapatuan bere etxeratzea eskatzeko ekintzak garatu zituzten Durangon. Esaterako, eguerdian mosaiko bat osatu zuten 200 lagunek Santa Ana plazan. Gero, Plateruenean bazkaldu eta Anje Duhalderen musikagaz igaro zuten bazkalostea. Fraileren etxeratzea ez zuten eskatu soilik kaleetan, baita errugbi-zelaian ere. Aurretiaz kirol horretan ibilitakoa da presoak, eta taldekide izan zituen DRTko beterranoek bere aldeko mezua atera zuten Arripausetara, Bizkaiko Txapelketan.

Badajozeko (Extremadura, Espainia) espetxean dago Fraile, eta 2015ean minbizia topatu zioten mingainean.

Udal Euskaltegiak prestatutako udako ikastaroetan parte hartzeko aukera

DURANGO • M.O.

Durangoko Udal Euskaltegiak udako ikastaroak antolatu ditu, eta dagoeneko eman daiteke izena. Hain zuzen ere, ekainaren 15era arteko epea egongo da parte hartu gura dutenentzat. EGA/C1, B2 eta B1 prestatzeko ikastaro trinkoak eskainiko dituzte uztaila eta iraila bitartean. Inskripzioarako, bulegoko ordutegia 10:00etatik 13:00era eta 15:30etik 18:00etara da; bari-kuetan goizez bakarrik.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko ekainaren 8a
16. urtea - 724. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Mikeldin 26 autorentzako aparkaleku proiektuaren aurka mobilizatzen hasi dira inguruko bizilagunak

Muruetabarriko etxeen ondoan zabaldu zen berdegunea babestu gura dute inguruetan bizi diren hainbat auzotarrek, eta aparkalekuaren aurkako sinadurak batzen hasi dira; astelehenean 80 bat lagun batu ziren elkarretaratzean

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Udazkena dirudien udaberri honetan, perretxikoak bezala irten dira Durangon herritarren plataformak. 24 orduko pediatriaren aldekoa sortu zen lehenik, trenbideko eremuan galdeketa eskatzeko gero, eta Mikeldiko aparkalekuaren aurkakoa orain. Udalak Muruetabarriko etxe berrien ondoan 26 autorentzako aparkaleku libre bat eraiki gura duela jakin dute Mikel-

bertan dagoenetik oinezkoen kopurua handitu eta auzoari eragin baikorra eman diola uste dutelako. Aparkalekua eraikiz gero, segurtasuna murriztuko dela uste dute, eta trafikoa, zarata eta kutsadura han-

ditu ere bai. Gainera, ondorioztatu dute parkina ez dela bertakoentzat, bizilagunen aldeko TAO berezirik ez delako aurreikusten.

Elkarretaratzean 80 bat lagun batu ziren. Auzoan urte askoan

bitzako batek azaldu zuen bere ustez "atzera egitea" dela berdegunea kendu eta aparkalekua sortzea, iraganean industriaren, parkinen edota barraken ezarpena bizi izan dutelako, besteak beste.



Prentsari ere deitu zioten bizilagunek, euren asmoen berri emateko.

Segurtasuna murriztuko dela uste dute, eta trafikoa, zarata eta kutsadura handitu

di, Juan Olazaran eta Muruetabarriko bizilagunek, eta horren aurka mobilizatzen hasi dira.

Astelehenean lehen elkarretaratzea eta prentsurrekoa egin zituzten, eta sinadurak batzen hasi ziren. Berdegunea babestu gura dute,

Altsasuko zigortuen alde kalera atera eta mobilizatzeko deia egin dute

DURANGO • M.O.

Martitzenean Altsasuko auziko lau gazte atxilotu eta kartzelaratu zituzten, Audientzia Nazionalak ezarritako zigorra betetzeko. 2 eta 13 urte arteko

Ekainaren 16rako manifestazioa antolatuko dute Iruñean gazte nafarren gurasoek

zigorrak jaso dituzte, eta sententzia errekurrituko duten arren, epaileak espetxera bidaltzea erabaki du, denak bat izan ezik.

Gertakari horien harira, manifestazio jendetsua egin zuten egunean bertan Durangoko kaleetan, gazteak askatzea eskatzeko. Zaldibarren ere elkartu ziren hainbat lagun.

Ekainaren 16rako, manifestazioa antolatuko dute Iruñean gazte nafarren gurasoek, eta martitzeneko mobilizazioetan bertara joatera dei egin zuten.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Ezin hobeto amaitu dute ikasturtea Maristak ikastetxeko bost ikasleek. Jon Koka, Julen Casal, Markel Molina, Iker Lete eta Iker Garitaonandia gazteek Eusko Jaurlaritzak antolatutako Kultur Ondarea lehiaketa irabazi dute. Saria datorren astean jasoko dute Eusko Jaurlaritzan: Napolesera bidaia.

"IKTko erronka bat izan da. Euskal Herriko kulturaren inguruko bideoa egitea izan dugu helburu", azaldu du Kokak. Horrela, baserriko bizimodua hartu dute oinarri. "Saiatu ginen Euskal Herri osoan grabatutako bideo bat egiten", dio Casalek. Baserri giroa islatzeko, Garaira eta Zaldibarrera joan ziren. "Solabizkar baserrian grabatu ditugu irudi batzuk, eta besteak

Baserriko bizimoduan gertatu den aldaketa bonbardaketagaz lotu gura izan dute

Ikerren Zaldibarko baserrian", gaineratu du Molinak. Baserriko bizimoduan gertatu den aldaketa Durangoko martxoaren 31ko bonbardaketagaz lotu gura izan dute bideoaren sortzaileek. "Garain baserriko lana lehen egiten zen

Maristetako bost gaztek Kultur Ondarea lehiaketa irabazi dute 'Gero' ikus-entzunezkoagaz

Batxilergoko lehenengo mailan ikasten duten gazteek datorren astean jasoko dute saria: Napolesera bidaia



Eusko Jaurlaritzak antolatutako lehiaketa irabazi duten Maristetako ikasleak.

eran grabatu genuen, eta Zaldibarren gaur egun erabiltzen diren teknologiek", azaldu du Letek. "Momentu batean baserriar bat eguneroko lana egiten ikusten da. Irratian sirena bat entzuten du

eta hegazkinak ikusten dira", dio Letek. Horrela, baserriko behinolako bizimodua eta gaur egungo uztartu dituzte gazteek. Orain, sari legez, Napoles, Capri eta Ponpeia dituzte zain.

HERRIKO DENDETAN EROSI; ZUK IRABAZTEN DUZU, IURRETAK IRABAZTEN DU

lurretan egindako erosketa bakoitzeko **ARRASPATU ETA IRABAZI!**

Iurreta Eleizateko Udala **Dendak Bai**

KANPAINAREN OINARRIAK:

lurretako erdiguneko establezimenduetan egindako erosketa guztiekin Arraspatu eta Irabazi txartel bat emango da.

Irabazi daitezkeen sariak 20€, 10€ eta 5€-ko deskontu txartelak dira.

20€ 10€ 5€

Parte hartu 100€-ko zozketan



Lau baserritan kalte handiak egon dira.



Herriguneko etxetan ere ura sartu zen. Mari Carmen Cuesta.

Euriteek 80.000 euro inguruko kalteak eragin dituzte Atxondon

Joan zen domekako euriteek igerilekuan eragin dituzte kalterik handienak; Atxondoko Udalak ekainaren 15ean eman gura zion hasiera aurtengo bainu denboraldiari

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Domeka eguerdian hasita, erruz egin zuen euria Durangaldean, eta Atxondo izan zen es-

Hainbat errekek gainezka egin zuten domekan eta Atxondoko hainbat bide urak hartu zituen

kualdeko herririk kaltetuena. Hainbat errekek gainezka egin zuten eta igerilekuan, eskolan, baserrietan eta herriguneko hainbat etxetako atarrietan sartu zen ura. Hainbat bide ere hartu zituen urak eta hondatuta gelditu ziren. "Igerilekuan kalte handiak daude, makina gelako sotoa urez bete zen eta bertan dauden makina guztiak hondatu ziren", adierazi du David Cobos Atxondoko alkateak.

Dena prest zuten Atxondon hilaren 15ean aurtengo bainu denboraldiari irekiera emateko, baina orain atzeratu egin beharko dute dena.

Santixa, Axpe eta Apatako lau baserritan ere kalte handiak eragin zituzten euriteek



Euriteek igerilekuan eragin dute kalterik handiena.

"Ekainaren 15ean igerilekuak zabaltzea zaila izango da, gure esku ez dauden hainbat gauza egin behar dira eta. Gainera, horiek konponduta ere, baimenak eskatu beharko ditugu", esan du Cobosek.

Santixa, Axpe eta Apatako lau bat baserritan ere kalte handiak eragin zituzten euriteek. "Herriko lau bat baserritan ur dezente sartu zitzairen eta kalte handiak eragin zituzkien", amaitu du Cobosek.

Abeletxe kalea norabide bakarreko bihurtuko du Berrizko Udalak

195.000 euro bideratuko dituzte lan horiek egiteko

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eskolako irisgarritasuna bermatzeko asmoz, iaz Learreta-Markina kalea norabide bakarreko bihurtu zuen udalak. Ordutik, herriko irteera dago kale horretatik.

Aurten, proiektu horregaz lotura duten beste lan batzuekin

Segurtasuna bermatzeaz gain, aparkaleku berriak ere egingo dituzte Abeletxe kalean

hasteko asmoa du Berrizko Udalak, Abeletxeko kaleko lanekin, hain zuzen ere. Kale hori ere norabide bakarreko egin gura dute, eta, lanak bukatutakoan, herrirako sarrera egongo da Abeletxe kaletik.

Horrez gain, kale horretarako segurtasuna bermatuko dute zebra-bide berriak eginez eta irteerak hobetuz. Bestalde, kale horretan 40 bat aparkaleku berri sortuko dituzte.

195.000 euro bideratuko dituzte lan hauek guztiak egiteko.



Gaur egun norabide bi ditu Abeletxe kaleak.

ai arizmendi
ikastola **PRO**

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

Zure Lanerako Bidea

AURREMATRIKULAZIO EPEA ekainaren 4tik 15era

→ Kirola

→ Erizaintzako zaintza osagarriak

→ Mikroinformatika

→ Osasun larrialdiak

943 77 20 25 (ext.4322) • lanbideheziketa@arizmendi.eus

www.arizmendipro.eus

Muntsarazko bizilagunek 704 sinadura bidali dituzte Aldundira, auzoko sarrerako arazoa konpontzea eskatzeko

Sarreran biribilgunea ezartzea eta semaforoak birprogramatzea eskatzen dute auzotarrek

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Irtenbiderik barik jarraitzen dute Muntsarazko bizilagunek. Gere-diaga-Elorrio saihebidia zabaldu zenetik, trafiko jarria nabarmen gutxitu da. Hala ere, hainbat auzotar kexu agertu dira, oztopoak dituztela-eta. Auzorako sarreran biribilgunea ezartzea eskatzen diote Abadiño Udalari, eta semaforoen arazoari ahalik eta bizkorren konponbide bat aurkitzea. Lehengo trafiko jarioaren arabera programatuta jarraitzen dute, eta hau aldatu denez, programazioa bera aldatzeko eskatzen dute.

Hilabetez sinadurak biltzen jardun ostean, apirileko osoko

bilkuran mozioa aurkezten saiatu zen bizilagun talde bat, baina ez zen onartu. Jose Luis Navarro alkatearen arabera, "gaizki ulertu"

Hurrengo auzo batzarra ekainaren 11n izango da, 19:00etan, Muntsaratz auzoko lokaletan

bat egon zen. EH Bilduk sartu zuen mozioa, bizilagunen izenean, baina Udal Gobernuak (Aik eta EAJk osatzen dute) aurka bozkatu zuen. Asteotan sinadurak biltzen jarrai-


tu du bizilagun talde honek, eta joan den astean 704 abadiñarren sinadurak bidali zituzten Bizkaiko Aldundira. Erantzunik jaso barik jarraitzen dutela adierazi du bizilagun taldeak.

Deialdia astelehenerako

Egoera konpondu bitartean, Muntsarazko auzotarrek antolatzen jarraitzeko asmoa agertu dute. Horrela, maiatzaren 21ean auzo batzarra egin zuten; hamabost bat bizilagun agertu ziren euren desadostasuna agertzeko. Datorren astelehenerako, ekainak 11, deialdi berria egin dute. 19:00etan izango da, Muntsarazko lokaletan.



Auzoan pankartak eta informazioa ematen duten panelak jarri dituzte.



Markel Meda; Imanol du.

Gorka Madrazoren kartelak iragarriko ditu aurtengo Zaldibarko jaiak

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Lehiaketa bidez aukeratu dute, aurre ere, kartel iragarlea. Zazpi proposamen aurkeztu dituzte lehiaketara, eta Gorka Madrazorenak irabazi du.

Lehenbizikoz parte hartu du gazteak lehiaketan. "Denbora da aurkezteko asmoa nuela; aurre denbora aldetik ondo ibili naiz eta parte hartzeraz animatu naiz", adierazi du gazte zaldibartarrak. Madrazok 250 euroko saria irabaziko du.

"Azken urteetan ezin izan ditut jaiak bertatik bertara disfrutatu eta kartelean ekintzarik ezagunenak nabarmendu gura izan ditut", adierazi du. Madrazori saria jaietako txupinazoren egunean emango diotela jakinarazi du Zaldibarko Udalak.

Gari&Maldanbera taldeak kontzertua eskainiko du Mekoletako jaietan

OTXANDIO • J.D.

Mekoletan hainbat musika kontzertu antolatu dituzte jaien barruan. Esaterako, bihar, 19:30ean, Gari musikariak gidatzen duen Gari&Maldanbera taldearen zuzeneko ikusteko aukera egongo da.

Ekitaldiz betetako arratsaldea prestatu dute zapatutako. 17:30ean, Urduri taldeak dantza saioa eskainiko du eta, jarraian, haurrentzako jolasak izango dira. Gari eta bere taldearen kontzertuaren ostean, herri afarian batuko dira. Eneko



GARI

Abasolo, Beñat Ugartetxea, Unai Iturriaga, Aitor Esteban eta Igor Elortza bertsolariak eta Xabi Aburruzaga

eta Joseba trikitilariak girotuko dute afalostea.

Gaur ere badago zegasgozatu. 21:00etan, jaiei hasiera emango dien txupina botako dute. 23:00etan, Anita Parker talde arrasatearrak eta State Alerta abadiñarrak zuzeneko eskainiko dute Arkotxe elkarrean.

Amaitzeko, astelehenean San Bernabera igoera egingo dute goizean, eta briska eta mus txapelketak 17:00etan.

leartibai
ikastetxea

guk gure etorkizuna eraikitzen dugu

Markina-Xemein (Bizkaia) - 94 616 90 02
info@leartik.eus - www.leartik.eus



Ibai Erkiaga Goitiz
(Lekeitio, 1977)

Lea Artibai Ikastetxeko ikaslea izan zen Ibai Erkiaga Goitiz eta lanbide heziketako Administrazioa eta Finantzak goi mailako zikloa ikasi zuen.

Kirolari profesionala izan ondoren, ikastea erabaki zenuen.

Bueno, oraindik aktibo jarraitzen dut zesta-punta munduan. 1999. urtean Amerikako Estatu Batuetara joan nintzen pilotan jokatzera, Floridara hain zuzen, Orlando eta Daniako frontoietara. Bertan 13 urtez aritu ondoren, 2011. urtean bueltatu nintzen Euskal Herri nire familiagaz. Lan egoera nola dagoen ikusita, prestakuntza ziklo bat ikastera animatu nintzen, izan ere Ameriketara nire ikasketak amaitu gabe joan nintzen. Merezki izan du.

Administrazioa eta Finantzak zikloa zelakoa da?

Egia esan, nik uste baino errazago eraman nituen ikasketak. Hainbeste urte liburu bat eskuetan hartu gabe egon eta gero, pentsatu nuen zaila egingo zitzaidalda, baina ez zen horrela izan. Egin beharreko lanak ikastetxean bertan egiten genituen eta etxerako ez genuen apenas lanik edukitzen. Klaseak oso entretenigarri eta erosoak egin zitzaizkidan. Egia esan, amaitu nuenean pena ere eman zidan handik alde egiteak. Zeintzuk dira zuretzat lanbide

heziketa ikastearen onurak?

Enpresek nola lan egiten duten ikasten da. Askotan, ikasitakoak egiten dudana zer ikusirik ez badu ere, esperientzia handia hartzen da, gauza berriak ikasi, beraien lan egiteko era eta baita inguruko enprekiko duten harremana ere. **Non zaude lanean gaur egun?** Markina-Xemeinen dagoen Gaimaz enpresan nago lanean, administrazio bulegoetan. Izan ere, praktikak hemen egin nituen. Oso gustura nago, lankide jatorrak ditut eta etxetik ezin hurbilago nago. Ezin dut gehiago eskatu!

Elorrion 10 urterako ekintza plana osatu gura dute herriko merkataritza txikia suspertzeko asmoz

Garatuko duten ekintza planean herriko merkatarien kezka eta lehentasunak jasoko dituzte; baita elorriarren iritziak ere



Iker Eizagirre, Izaskun Agirre, Aitor Eguren eta Txus Arrieta.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Herriko merkataritza txikia suspertzeko asmoz, Elorrioko Udalak plan berria jarri du martxan. "Elorrioko merkataritzak ze erronka dituen identifikatzea beharrezko ikusten

dugu eta, horregatik, merkataritza plana eratzearabaki dugu", adierazi zuen Txus Arrieta astelehenean emandako prentsaurrekoan.

Hiritik At enpresak garatuko du ekintza plana, hamar urterako, eta

uztailerako eginda izatea aurreikusten dute.

Planak hiru fase nagusi izango dituela jakitera eman zuten. Lehenengo, hiru elementutan oinarrituko den diagnostikoa landuko dute.

Horretarako, merkataritza guztiei galdetegi bana emango diete, eta hainbat herritarren iritzia ere jasoko dute.

Bestalde, merkatariekin taldekako foroak antolatuko dituzte,

bakoitzak bere iritzia eman eta dituzten kezka zein lehentasunak mahai gainean jarri eta guztien artean adosteko.

Asteleheneko prentsaurrekoan, Txus Arrieta zinegotziak herriaren erostearen garrantzia azpimarratu zuen. "Etxetik irten eta herriaren erostea bezalakorik ez dago", esan zuen. Herriko merkatariek Elorrio biziarazten dutela eta herriaren zaindariak direla gaineratu zuen.

Elorrioko Merkataritza Elkartearen Aitor Eguren elkartearen kezka-

Hiritik At enpresak garatuko du ekintza plana eta uztailerako eginda izatea aurreikusten dute

tuta daudela eta ekintza plana osatzeko euren esku dagoen guztia egingo dutela jakinarazi zuen. "Denda txikien kontsumoaren joera beherantza doa Elorrioan ere, eta hori aldatu gura dugu. Apurka komertzio gutxiago gaude Elorrioan, jubilarioengatik ixten direnak errealitate ez dutelako, esaterako".

Garatuko duten ekintza planean bidez herritarrei Elorrioan merkataritza badagoela eta bertan erosi daitekeela erakutsi gura dietela jakitera eman zuen EMEko kideak.

Aldapebeitian jasotako ekarpenak herritarrekin partekatuko dituzte

530 pertsona igaro dira Aldapebeitiako jauregitik ateak irekitzeko egunetan, eta 600 herritarrek egin dituzte ekarpenak, Elorrioko Udalak jakitera eman duenez



530 herritar igaro dira Aldapebeitia jauregitik.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Aldapebeitia jauregiari etorkizunean zein erabilera eman erabakitzeko, Elorrioko Udalak prozesu parte-hartzaile bat jarri zuen martxan maiatzaren 15ean. Prozesuak iraun duen aste bietan, elorriarren

Ekainaren 13rako, eguaztena, deitu duten bilera zabala 18:30ean hasiko da udaletxean

600 proposamen jaso dituzte eta jauregitik 530 herritar igaro dira.

"Oso emaitza onak izan ditugu. Nabaritzen da jendeak badituela proposamenak eraikin honetarako, eta hori da garrantzitsua, guztion artean proposamenak egin, horiek baloratu eta ahalik eta ondoriozko adostuenetara heltzea", adierazi du Idoia Buruaga alkateak.

Hori horrela, batzar zabala antolatu dute ekainaren 13rako, jasotako ekarpenak herritarrei azaldu eta ondorioak bateratzeko. Bilera 18:30ean izango da, udaletxean.



Zapatuan egin zuten jaia.

400 lagun batu ziren Txintxirri Ikastolaren 50. urteurreneko bazkarian

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen zapatuan Elorrioko Txintxirri Ikastolaren 50. urteurrena ospatu zuten egun osoko jai bat eginda. Goizean goizetik hainbat ekintza izan zituzten herriguneari: jolasak, umeen ikuskizunak eta Ikastolaren urteurreneko abestiaren aurkezpena, besteak beste.

Eguerdiaren berriz, 400 lagun bazkaritarako batu ziren eta eguna giro ederrean igaro zutela jakitera eman dute Txintxirriko kideek. "Eguna oso ondo joan zen, eguraldia ere aldeko izan genuen eta dena ezin hobeto irten zitzaigun", adierazi du David Cobos Txintxirri Ikastolako zuzendariak.

Jabi Retegik hartu du Julio Cuestak libre utzi duen zinegotzi kargua Izurtzan

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Udalean zinegotzi aldaketa bat egon da. Gobernu Taldean dagoen EH Bilduren partetik zinegotzi kargua izan duen Julio Cuestak utzi egin du eta bere tokia Jabi Retegik hartu du.

Legegintzaldi honetan hiru urte eman ostean, Cuestak arrazoi pertsonalengatik utzi du kargua. Oraingoa ez da bere lehenengo esperientzia izan udalean. Orain 12 urte Lorea Muñozek Izurtzako alkateetza lehenengoz eskuratu zuen legegintzaldian ere zinegotzi jardun zuen.

Bere bigarren esperientzian, 2015etik hona, Ogasun Batzordeko ardura izan du.

2019an izango diren udal hauteskundeetara bitartean, bere ordezkari izango den Retegik hartuko du ogasun arloko kontuen ardura. Retegi izurtzarra da, baina gaur egun Durangon bizi da.



JABI RETEGI

Ekonomia zirkularra: etorkizunera begira dagoen irtenbide bakarra

Eskolako Agenda 21 programak 15 urte bete dituen honetan Berrikuntza taldea ere sortu da etorkizuneko erronkak zehazteko

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Hondakinak sortu barik, baliabide naturalak era egokian ustiatuz sustatzen den ekonomia zirkularra, etorkizunera begira dagoen irtenbide bakarra, ezagutu dute Durangaldeko 14 ikastetxetan. Amankomunazgoak antolatutako jarduera izan da, Eskolako Agenda 21 programaren barruan.

Baserrietan beti ezagutu duten ekonomia zirkularra landu dute Durangaldeko 350 ikaslek ikasturtean zehar

Baserrietan betidanik ezagutu duten egiteko modu horren berri izan dute Durangaldeko 350 ikaslek, ikasturtean landutako tailerren bidez.

Ekokontsumitzaileen urrezko arauak eta berrerabilpenerako edukiontzia (ontzi zuria) jorratu dituzte, batetik, ekonomia zirkularren adibideak ezagutu dituzte

eta herrian duten eragina aztertu, berrerabiltzerako orduan herritarrek dituzten ohiturak barne.

Kooperak duen sailkapen planta bisitatzeko aukera ere izan dute, eta han ikasitakoagaz informazio kanpaina egin dute eskoletan, berrerabiltzeko materiala ere batuta.

Hondakin kudeaketa lantzeko tailerra eta zaborren auditoretza ere egin dituzte Eskolako Agenda 21eko programaren barruan. Eskualdeko hondakin bilketa zerbitzua aztertu dute, eta zabor mota guztiak sailkatzeko dagoen aukera ere bai. Edukiontzi marroiaren erabilera ere landu dute, eta hondakin organikoek kudeaketa eta konposta.

Tailer horiek eta Eskolen arteko foroa eta Udal-foroa dira 15 urte bete dituen Eskolako Agenda 21eko oinarria. Urteurren biribila aprobetxatuz, orain arte egindako lana aztertu eta etorkizuneko erronkak zehazteko Berrikuntza taldea ere sortu da, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko ordezkariekin.



Berrerabilpena sustatzeko, bilketa kanpaina jarri dute abian Durangaldeko ikastetxeetan.

Eskola Jasangarriaren ziurtagiria jaso dute Durangaldeko bi ikastetxek

Durangoko Ibaizabal ikastetxeak lehenengoz lortu du ziurtagiria, aurten; lurretako Juan Orobiogoitia institutuak, berriz, ingurumenarekiko konpromiso hori berriztu du



Goian, bi ikastetxeetako ordezkariak Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuagaz eta Ingurugelako eta Mankomunitateko teknikariek.

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Durangoko Ibaizabal ikastetxea eta lurretako Juan Orobiogoitia institutua tartean, Eskolako Agenda 21 programan parte hartu duten hogeita hamar ikastetxek Eskola Jasangarriaren ziurtagiria jaso dute, asteon. Ingurumenaren Munduko Egunean egindako ekitaldian Iñigo Urkullu lehendakariak eta Iñaki Arriola eta Cristina Uriarte sailburuek parte hartu dute.

Ziurtagiriagaz batera, horren erakusgarri den bandera zuria eman diete ikastetxeei

Lehenengoz jaso du ziurtagiria Ibaizabal ikastetxeak. Juan Orobiogoitia Institutuak, berriz, berrikuntzarako gaitasuna eta jasangarritasunaren aldeko konpromisoa jasotzen dituen

ziurtagiria berriztu du. Konpromiso horren erakusgarri den bandera zuria ere eman diete.

Iñigo Urkullu lehendakariaren berbetan, "hezkuntza da tresnarik ahalmentsuena mundua hobetuko duten aldaketa positiboak sorrarazteko", eta gogoratu du Jaurilaritza "ekonomia zirkularra bultzatzearen alde lanean" ari dela. "Ekoiztu, erabili eta bota, ohiko prozedura hori baztertu beharra dago, eta murritzaren, berrerabiltzearen eta birziklatzearen alde apustu egin behar da. Neurritz gaineko kontsumotik kontsumo arduratsu batera igaro beharra dago".

Guztira, 98 ikastetxek —horien artean, Elorrio BHI institutuak eta Txintxirri ikastolak— dute Eskola Jasangarria ziurtagiria. Guztiek gainditu dute auditoretza bat, berrikuntzarekiko, kalitatearekiko eta ingurumenarekiko konpromisoaren alde egin duten apustugatik saritzen dituen.

Anbulatorio zaharreko eraikina eraitsi dute musika eskola berria egiteko

ZORNOTZA • J.D.

Musika eskola berria egiteko lanei ekin diete asteon. Eguaztenean hasi ziren ambulatorio zaharreko eraikina botatzen, gero hor geratuko den orubean

Lanen ondorioz, ezingo da Zelaietako aparkalekura gaur arratsaldera arte sartu

musika eskola egiteko. Lan horien ondorioz, gaur Zelaietako aparkalekurako sarrera itxita egongo da Txiki Otaegi kaletik, goizean 14:00ak arte eta arratsaldean 17:00ak arte, udal arduradunek informatu dutenez.

Auzolanera deitu dute zapatu honetarako, herriko zangak garbitzeko

MAÑARIA • J.D.

Udalak auzolaneari aritzeko egindako hiru deialdietatik azken asteberu honetan izango da. Orain astebete egin zuten moduan, zapatu honetan ere herriko zangak garbitzen arituko dira auzolaneari aritzera animatu direnak. 08:00etan elkartuko dira, herriko plazan. Auzolanetako lehenengo saioa maiatzean izan zen eta orduko hartan herriko pilotalekuko kristalak garbitzen aritu ziren elkarlanean.

Momoiitiko jaiak prestatzen dabilta Garain, udari ongietorria emateko

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Sanjoanak ospatuko dituzte Momoiitio auzoan, hilaren 23an eta 24an, sasoi berriari ongietorria emateko. Udalak antolatuko ditu jaiak, Trumoitte kultur elkartearen laguntzagaz, eta badabilta egun horietarako ekintzak prestatzen. 23ko iluntzean Donien Atxa igoko dute, 20:00etan, eta suaren aurretik saiheskia eta sardinak eskainiko dituzte. Domekan, iaz hasitako paella lehiaketari eutsiko diote, ohiko meza eta dantzez gainera.

“Omenaldia benetan hunkigarria izan zen niretzat, eta oraindik ez dut erabat barneratu”

Juan Carlos Perezi omenaldia egin zioten Mallabiko Azokaren barruan, urteetan egindako lana eskertzeko



Juan Carlos Perez joan zen asteburuko omenaldian, udalak emandako oroigarriagaz.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Urte askoan gidatu duen Mallabia areto-futbol taldeko ardurak utzi ditu Juan Carlos Perezek (Eibar, 1961) eta joan zen domekan, Mallabiko Azokaren barruan, omenaldi hunkigarria egin zioten egindako lana eskertzeko. Ez da geldi egoteko gizona eta ardura bat utzi badu, beste batzuetan zentratzeko da.

Espero zenuen hain omenaldi bero eta jendetsua?

Omenaldia benetan hunkigarria izan zen niretzat, eta oraindik ez dut erabat barneratu. Lehen taldeko jokalaria, beste hamaika lagun eta ezagun... Zalduako arduradunak egoteak ere ilusioa egin zidan. **Areto-futbolari esandako agurra behin betikoa da?**

Bai, futbol federatuari dagokion guztia utzi dut. 22 urte asteburu liberrik barik asko dira. Kontuan hartu behar da hasieratik bertatik taldearen inguruan beste hamaika ekimen antolatu izan ditugula, tenis eta frontenis txapelketa, esaterako. Eta lanak bere fruituak eman ditu. Ibai Asenjo futbol jokalaria mallabitarra Lezaman dabil gaur

egun eta Iñigo Pradera, Gernikan, Bigarren B Mailan. Hori guztia pozgarria da, baina orain beste lehen-tasun batzuei ekitea erabaki dut.

Zertan ibiliko zara aurrentzean?

Gazte eta gaztetxoekin lan egin gura nuke. Betidanik gustatu izan zait hori. Lehen, pelikula bat jartzen nuen ia domekero, edo eskolan umeendako jokoak askotan antolatu izan ditut. Hori guztia utzita daukat, denbora faltagatik, eta berreskuratu egin gura dut. Bi domekarik behin izango da: goizetan jokoak eta arratsaldetan zinema. Asteazkenean tenis, futbol eta saskibaloia eskolagaz ibiliko gara.

Beraz, aurrentzean ere ez dituzu asteburu denak libratuko.

Bi asteburutik bat libratuko dut. Gutxiago ezagutu duenarentzat asko da. Nik eskertuko dut eta nire emazteak ere bai. Emaztea nire bizitzako erabakirik onena izan da. Torneo denetara etortzen da, posturik jarritz gero, bera egoten da... Nigaz alde batetik bestera ibili da, nigaz egon ahal izateko.

Areto-futbol taldeak aurrera jarraituko du?

Baliteke. Durangoko Sasikoak eta Ermuako Scorpiok gure taldeko plazarak hartzeko interesa dute, baina ikusi egin beharko da kontua gauzatzen den ala ez.

Lanak atzeratu egin dira, eta ezingo dute oraindik aquaparka zabaltzeko

Igerilekuak, txirristak eta olatu artifiziala izango dituen azpiegitura ekainaren 11n, astelehena, zabaltzea aurreikusitako ur parkearen proiektuaren sustatzaileek

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Egitasmoaren sustatzaileek ezin izango dute aquaparka aurreikusitako epeen barruan zabaltzeko. Astelehenean, ekainaren 11n, zabaltzeko zutela iragarri zuten martxoan, baina oraindik lanean ari dira Ibarretxe kultur etxearen alboan dagoen 4.000 metro koadroko lur-sailean. Igerilekuak, txirristak eta olatu artifizial bat jarriko dituzte bertan, egitasmoaren sustatzaileek azaldu izan dutenez.

Iurretako Udalak eman behar die azpiegitura zabaltzeko ahal izateko azken baimena, jardura baimena. Hala ere, horretarako, bestelako lizentzia guztiak izan beharko dituzte. Adibidez, igerilekuetako ur kalitateari dagokiona.



Maiatzean hasi zituzten aquaparkaren lanak.



Omenaldiaren irudi bat.

Hunkituta hartu du Guraso Elkartearen eskerra Gurrutzagak

IURRETA • AITZIBER BASAURI

"Emandako pausoak eta egindako lana jendeak baloratu duela ikusteak oso pozgarria da", esan du Iñigo Gurrutzagak Maiztegi ikastetxeko jaialdian esker ona jasotzerakoan. Maiztegi eredu goratu egin du 13 urtean Guraso Elkartearen aritu denak. "Eredu oso berezia da, altxor bat, orain 35 urte guraso talde batek hartutako erabakiaren ondorioa. Bide horretan, badago nik beste meritu edo gehiago duenik", gaineratu du.



Hareek denporak!

SAN FAUSTOKO GILTZAK EMATEKO EKITALDIA

Industrializazioaren eraginez, estatuko hainbat langile etortzen hasi ziren Euskal Herrira 50eko hamarkadan, eta Durango izan zen euretako asko hartu zituenetako herri bat. Trenez heldu ziren gehienak, euren ordura arteko bizimodua atzean utzita lana aurkitzeko asmoz. Frankismoko agintariak etxeak eraiki zituzten –uztarriaren eta gezien sinboloak oraindik ere ikusi ahal dira nonbait, asko

kendu diren arren–, eta San Fausto, Juan Itziar eta San Roke edo *Matadero*ko auzoak sortu ziren horrela, periferian.

Durango Udal Artxibotik atal honetara dakargun argazkia 1958koa da, San Faustoko etxe berrien giltzak entregatu zituzteneko. Jendetza joan zen ekitaldira, eta Jose Luis Azpiroz alkate frankistak eman zituen beharginei saldutako etxeen giltzak. **M.O.**

Sei hankako mahaia

Goiztidi
Diaz Basterra
EAJ



Trampantojoak

Modan dagoen hitza dugu berri, batez ere sukaldaritzaren munduan. Moda berrien hedadura ezin daiteke ekidin eta politikan ere zenbait trampantojo ikuskarri ditugu. Udalean, hilerro daukagu alderdi batzuek eskaintzen duten trampantojoen degustazio menua.

Honela, mozio izena daramaten sukalkiak eskaintzen zaizkigu eta itxura batean halan diruditenak trampantojo galanta bilakatzen dira. Oso erraza da hileko azken egunetan lan egitearen itxura egin eta azken orduko emaitza bat aurkeztea, Durangoren alde egitearen atzekipean jarrita. Baina ez, ardi txikia beti da bildots eta nahiz eta batzuk artistak izan trampantojoaren teknikan, proiektuak martxan daude hileroko degustazio menuan agertzen direnerako.

Noski, errezeten liburu ona dago, izan ere kudeaketa plana publikoa baita. Horregatik, asko dira har ditzaketan osagaiak kozinatzen, eta halan, erraz egin daitezke azken orduko lanak gauzak inori esker egiten direla aldarrikatuz. Beste batzuek eguneroko egiten dugu lana, eta laster konturatzen gara aurrean trampantojo bat dugunean. Hau da, dirudiena ez da eta proiektuak alde aurretik daude argitaratuta eta martxan. Proiektuak eguneroko lanaren ondorioz doaz aurrera, batzuen gogoz Durango aurrera doa. Beste batzuek balitz, engainua baino ez dakarten trampantojoetan murgilduta egongo ginateke, ez baitaie axola herritarrak galtzaile izatea.

Durango alderdi trampantojoak baino gehiago merezi du, aurrera egitea merezi du eta horren alde egingo dugu lan, orain eta beti, herriak eman zigun konfiantzaren atzekipean jarrita.

Durungaldea asteen

Minbiziaren aurkako II. Spinning maratoia antolatu du Abadiñoko Udalak

Abadiño | Spinning maratoia ardatz hartuta, asteburu osoko egitaraua prestatu dute antolatzaileek asteburu honetarako. *Irribarre batengatik borrokan* da aurtengo edizioaren leloa, eta iazkoa bezain arrakastatsua izatea gura dute.

Parte-hartzaile bakoitzak 4 euro emango ditu pedalei eragiten dien ordu bakoitzeko; maratoia 09:00etan hasiko da eta lau ordu eta erdiko iraupena izango du. Asteburuan zehar kontzertuak ere egongo dira, besteak beste.

Berdintasuna eta pentsamendu askatasuna aldarrikatuko dituzte Merinalde Egunean

Durungaldea | Gerediaga Elkarteak Merinalde Eguna ospatuko du zapatuan Gerediagako basilizian. Orain 400 urte sorginkeria salaketak erabiliz eskualdeko agintariak ipinitako zigor neurriak gogoratuko dituzte eta ondorengoei kalte-ordain modura barkamena eskatuko zaie, berdintasuna eta pentsamendu askatasuna aldarrikatuz. Ekitaldian Durungaldeko, Amankomunazgoko eta Batzar Nagusietako ordezkariak parte hartuko dute.

Dendak Baik Durango monumentuen irudiak dituen pitxerrak emango ditu

Durango | Ekainaren 11tik uztailearen 6ra arte, Durungaldeko Merkataritza Elkarteak, Durango Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzagaz, kanpaina berri bat ipiniko du martxan *Edan Durango uda honetan* lelopean. Epe horretan, Durango monumenturik garrantzitsuenen irudiak dituzten lau pitxer oparitutako dizkiete 30 euro baino gehiagoko erosketak egiten dituztenei.



Mas Curvas motorzaleen elkarteak urteurren jaia ospatuko du domekan

Durungaldea | Durungaldeko Mas Curvas motorzaleen elkarteak 11. urteurren jaia ospatuko du domekan, Durango. 10:30ean, Mas Curvas elkartearen lokalean batu, izena eman eta gosaldia egingo dute. Ondoren, 11:00etan, bueltatxo bat egingo dute motorrean, eta 14:30ean, bazkaritarako batuko dira. Arratsaldean, berriz, motor gainean jokoak egingo dituzte.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, izen-emateak 10 euro balio ditu eta ammascurvas@hotmail.com helbidean egin daiteke.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9. - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

hitz
liburudenda

artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com



LIBURU AURKEZPENA
"Vasco, ¿cómo se llama tu país?"

Iñaki Azkoaga eta Jon Ander Ramos
Ekainak 20, eguaztena
19:00etan
Sarrera doan


Zure iragarkia jarri nahi duzu?

94 621 79 02

anboto
komunikabideak

Untxiak ez du barazkirik jan nahi eta gorde egin da. Lagundu amari ezkutalekuraino heltzen, belarrietatik heldu behar du eta.

Otordua



Sartu
www.plazanbazan.eus
web atarian eta
denbora-pasa hauen erantzunekin
batera beste hainbat jolas aurkituko
dituzu.

Zeeer?!

Ui, ene! Baina zer demontre dio Maripurtzilek?! Konturatu zara? Alderantziz ari da hizketan... Esaten ari denari taxua hartzen ez badiozu, jarri orria ispiluaren aurrean eta berehala asmatuko duzu esaldia.





www.plazanbazan.eus
Egilea: Garbine Ubeda (Aiorri)

Itzala

Zein da mendigoizaleari dagokion itzal zuzena zortzi hauen artetik?



Esaera

Txerri gosetiak...

- ... potoloak izaten ditu titiak
- ... inguruan beti euliak
- ... ezkurra amets
- ... amets bitxiak
- ... lotan ematen du eguna
- ... ezertarako denborarik ez
- ... lotan jaten du
- ... platera hutsik
- ... inurriak lagun

Zuhatzeko etxola

Etxetik gertu, etxolatxo bat egin dute Maripurtzilek eta Pellozirik, lagunekin elkartzeko. Baina, baina, hori da anabasa!

Ea aurkitzen dituzun elementu hauek:



Ea aurkitzen dituzun beste elementu hauek ere:

• Txiklela • Pelloziriren ordenagailu eramangarria • Bi tximeleta • Eskuargi bat • Bi sagu • Barraskilo bat • Igela • Plastikozko ur botila • Hontza • Txerrikumea • Sugea



**CENTRO HÍPICO
DUKIENA**
ABADIÑO-BERRIZ

centrohipicodukiena.com

Informazio eta erreserbak

631 115 247

UDALEKUAK

- Ekainaren 25etik uztailaren 27ra
- Irailaren 3tik 7ra
- Irailaren 10etik 14ra

Ekitazio eskola bat baino gehiago!

Jarrai iezaguzu **In English!**

BERRIAK 15

ZOZKETA

Zure konpromisoa saritu nahi dugu

BERRIAren 15. urteurrena
BERRIALagunentzako
opariz beteta dator

Sartu webgunean, eta parte
hartu zozketan!

berria.eus/berriak15zozketa

Egin BERRIALagun
ekainaren 19a baino lehen
eta parte hartu zozketan!

1

Astebeteko bidaia hiru
lagunentzat **Costa Dauradara**.



2

Astebeteko bidaia bi lagunentzat
Kanaria uharteetara.



3

Lau eguneko bidaia bi
lagunentzat **Kanaria uharteetara**.



4



Eroskiko **100 euroko** hamabost
erosketa orga.

5



BERRIAren **urte osoko** hiru
harpidetza.

Laguntzaileak



berria

#BERRIAK15



Euskaraldia aurkeztuko dute Zaldibarren eta Zornotzan

Euskaraldiaren eskualdeko agerrialdia egin eta gero, herrietako

aurkezpenen txanda dator orain. Zaldibarren eta Zornotzan, hila-

ren 15ean egingo dute, 20:00etan. Zaldibarren udaletxeko plazan batuko dira, eta Zornotzan pregoi ibiltaria egingo dute, Pike Parken hasita.

Ekainaren 8an

ABADIÑO musika
Big Band taldearen kontzertua, 20:00etan, Errota kultur etxean.

DURANGO euskal jaiak
Joko tradizionalen topaketa, 09:45ean, Landako kiroldegian, antzerkia, 10:00etan, San Antonio ikastetxean, esku pilota eskolako haurren txapelketa, 18:30ean, kalejira txalaparta, alboka, trikitixa, pandero eskola eta sugarri fanfarriagaz, 19:00etan, Alde Zaharrea, IX. 'Peter' memoriala, 19:30ean, Jai Alai pilotalekuan, organo eta gregoriano abesbatza, 20:00etan, Andra Marian.

BERRIZ Legañoako jaiak
Igel txapelketa, 20:00etan, parrillada, 21:00etan, The Enfermos eta La Última Balaren kontzertua, 22:00etan.

DURANGO musika
Orion Child, Taken eta Incursed taldeen kontzertua, 20:30ean, Plateruenean.

Ekainaren 9an

DURANGO euskal jaiak
'Durangaldeko Ermitak' ibilbidea, 09:15ean, Madalena, kalejira eta dantza, 12:00etan, XVII. Zesta punta txapelketako finalak, 18:00etan, Jai Alain, 'Durango Hiria' kontzertua Silboberrigaz, 20:00etan, San Agustin kulturgunean, Ruben Costas DJ, 22:00etan, Andra Marian.

BERRIZ Legañoako jaiak
Dantza ekitaldia, 12:00etan, kalejira Bentazarreko mutiko alaiak taldeagaz, 12:30ean, VIII J.R Korpion memoriala, 14:00etan, umeen jolasak eta ostean txokolate jana, 16:30ean, 'La familia Toronbone' ikuskizuna, 18:30ean, erromeria Gauargigaz, 21:30ean.

DURANGO dantza
Noe eta Asierren ikuskizuna, 20:00etan, Plateruenean.

ELORRIO musika
JLN Aske eta RSFGaz elkartasun kontzertua, 20:00etan, Gaztetxean.

Ekainaren 10ean

ABADIÑO deialdia
'Pedalei eragin irri baten truke' elkartasuneko Spinning maratona, 09:00etan, plazan.

BERRIZ Legañoako jaiak
'Gure Esku Dago'-gaz trikipotea, 13:00etan, auzotarren bazkaria, 14:30ean, 'Todos Tenemos Magia' Oliver magoagaz, 16:00etan.

DURANGO jaia
Mas Curvas elkartearen IX. urteurrena. Izenematea eta gosaria, 10:30ean, moto ibilaldia pintxoagaz, 12:30ean, bazkaria, 14:30ean, motozaleentzako jolasak, eta ostean, zozketa, 16:30ean.

Ekainaren 11n

ABADIÑO hitzaldia
'Batxilergoa Traña-Matienan?' hitzaldi informatiboa Iñaki Osoro eta Iratxe Gorrotxategigaz, 18:30ean, Errota kultur etxean.

Ekainaren 12an

DURANGO euskal jaiak
Euskal Karaokea, 14:30-16:30, Andra Marian, 'Euskal Baserriaren eboluzioa' hitzaldia Garazi Arrizabalagaren eskutik, 18:00etan, Arte eta Historia musean.

ZORNOTZA euskaraldia
Alex Txikonon berbardia, 09:30ean, Urtza tabernan.

Ekainako agenda



8	"DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOA" 11:30 XXI. Durangaldeko Pertsona Nagusien gimnasia topaketa
14	"XII. KALEZ KALE" 18:00 Cia Ganso "BABO ROYAL" Askondo 19:00 Cia Aimar "ETXEA" Askondo
15	"XII. KALEZ KALE" 18:00 Trotamundos Circo "HISTORIAS DE UN BAÚL" Dantzari plaza 19:00 Iparraldea "MYTERIEUSES COIFFURES" Askondo 20:30 Trapuzaharra "A CAL Y CANTO" Dantzari plaza
16	"IU GAZTE" Gazteentzako "PAINTBALL IRTEERA"
17	"XII. KALEZ KALE" 13:30 Imanol Ituiño Magoa "MAGIA PARRASTAN" Dantzari plaza

Ekainaren 14an

DURANGO euskal jaiak
Baserriko kirolak, 09:30ean, Ezkurdin.

DURANGO musika
Trigger Prototxeloren kontzertua Eguenero zikloaren baitan, 20:00etan, Intxaurre kultur elkarte.

ZALDIBAR musika
Afari merienda, 19:30ean, Mississippi Queen taldearen kontzertua, 21:00etan, gaztetxean.

Ekainaren 11ra arte

ELORRIO deialdia
Crotch ikastarorako izenematea zabalik.

Ekainaren 15era arte

DURANGO deialdia
Udal euskaltegiko udako ikastaroetarako matrikulaldia zabalik, 10:00-13:00/15:30-18:00, bulegoan.

Zinema

:: Durango ZUGAZA

• **Jurassic World: El Reino Caído**
barikua 8: 19:30/22:00
zapateria 9: 16:45/19:30/22:30
domeka 10: 17:30/20:30
astelehena 11: 18:30/21:00
martitena 12: 20:00
eguztana 13: 20:00

• **Marguerite Duras. Paris 1944**
barikua 8: 19:30/22:00
zapateria 9: 19:30/22:30
domeka 10: 18:30/21:00
astelehena 11: 18:30/21:00
martitena 12: 20:00
eguztana 13: 20:00

• **Algo Celosa**
barikua 8: 19:30/22:00
zapateria 9: 19:30/22:30
domeka 10: 18:30/21:00
astelehena 11: 18:30/21:00

• **Beyond Beyond**
zapateria 9: 17:00
domeka 10: 16:30

:: Zornotza ARETOA

• **El Doctor de la Felicidad**
barikua 8: 20:15
zapateria 9: 19:30/22:00
domeka 10: 20:00
astelehena 11: 20:15

ANBOTOkoko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguzten eguerdia baino lehen.

Eguenean abiatuko da lurretako XII. Kalez Kale jaialdia, ikuskizun bigaz

Aurten, lehenbizikoz, Karrikan plataformaren baitan antolatu du lurretako Udalak kaleko antzerkiaren jaialdia; kaleko antzerkigintza sustatzea du helburu Karrikan plataformak



Ganso konpainiaren 'Brabo Royal' ikuskizunagaz hasiko da XII. Kalez Kale jaialdia.

MUSIKA • A.M.

Karrikan plataformagaz bat egin duenetik, lehenbiziko edizioa du aurtengoa Kalez Kale jaialdiak. Lau egunean zehar, zortzi obra ikusi ahalko dira lurretako kaleetan; eguraldi txarra eginez gero, Askondoko aterpean izango dira antzezlanak.

Hamabi urteotan, jaialditik 76 antzerki konpainia eta 400 antzezletik gora igaro direla azpimarratu

du Pilar Jimenez Kultura arloko arduradunak. Aurtengo edizio honetan, lehenbizikoz Ipar Euskal Herriko proiektu bat aurkeztuko dute jaialdian. *Mysterieuses Coiffures* obrak ile-apainketa, dantza eta antzerkia nahasten ditu, proposamen berezia eskainiz. Iurretan bizi diren Ganso konpainiako kideek estreinatuko dute jaialdia, *Brabo Royal* ikuskizunagaz; klowna, antzerkia eta zirkua nahasten ditu

obrak. Ostean, Aimar konpainiak *Etxea* ikuskizuna eskainiko du.

Kalez Kale jaialdia Euskal Herriko konpainiak soilik programatzen dituen kale antzerki jaialdi bakarra da. Berezitasun horri esker, antzerkigintzan lekutxo bat egin du jaialdiak, eta gero eta jende gehiago dator Iurretara kanpotik ere. "300 lagun inguru etortzen dira ikuskizun bakoitzera", dio Jimenezek.

EKAINAK 14

Brabo Royal (Ganso & Cia)
Familientzako antzerkia
Askondo Kalea

Etxea (CIA AIMAR)

Familientzako antzerkia Askondo Kalea

EKAINAK 15

Historias de un Baúl (Trotamundos Circo)
Familientzako antzerkia
Dantzari Plaza

Mysterieuses Coiffures

Familientzako antzerkia
Askondo Kalea

A cal y canto (Trapu Zaharra)

Familientzako antzerkia Dantzari Plaza

EKAINAK 16

Baserriko Porrusalda (Bapatean Zirkua) Familientzako antzerkia
Askondo Kalea

On the Beach (Amico Teatro)

TEATRO FAMILIAR
Askondo Kalea

EKAINAK 17

Magia Parrastan (Imanol Ituíño Magoa) Familientzako antzerkia
Dantzari Plaza

'Eguenero' musika zikloa martxan ipini dute Durangoko Intxaurren

MUSIKA • MARKEL ONAINDIA

Uztailaren 12ra arteko eguenean kontzertugune bihurtuko da Intxaurre herriko taberna, *Eguenero* izendatu duten musika zikloagaz. Eguraldiak lagun duz gero, tabernako terrazan eskainiko dituzte kontzertuak, doan, 20:00etan. Beraz, plan udatiara izateko gogoz jaio da.

Atzo ekin zioten egitarauari Jon Basagurenen -Izaki Gardena- taldeko abeslaria- emanaldiagaz, eta datozen asteetan euskal eszenako hainbat musikari pasatuko dira bertatik. Hurrengoa Trigger Protxotxelo txelista izango da, hilaren 14an. Handik astebetera Erein taldearen txanda izango da, eta hilaren 28an, Micerena. Napoka Iria taldeagaz ezagun egin zen Miren Narbaizaren proiektu berria da azken hori.

Gorosabel, bakarrik

Uztailaren 12an, EH Sukarra talde mitikoko Mikel Gorosabel Norton etorriko da Intxaurren, abenduan argitaratu zuen *Barne basoan barna* diskoa aurkeztera.

Musika garaikidea albo batera utzi, eta erreperitorio tradizionala ardatz duen kontzertua eskainiko du Silboberrik zapatuan

Solistas de Valencia talde gonbidatuak 'Tradició a l'Escena' ikuskizuna eskainiko du Durangoko txistu taldeagaz batera

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Protagonista bi izango ditu zapatuan egingo den txistu kontzertuak. Euskal Astearen baitan antolatu ohi du kontzertu hau Silboberrik, eta aurten Solistas de Valencia izango dira gonbidatuak. San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, 20:00etan.

Hamazortzi urte daramatza txistuaren alde beharrean Silboberrik. Musika garaikidea jorratu ohi duten arren, zapatuko kontzertuan erreperitorio tradizionala eskainiko du talde durangarrak. "Zerbait berezia eskaini gura izan dugu", azaldu du Maribel Roldan Silboberriko koordinatzaileak. Horrela, hiru pieza eskainiko dituzte. Alde bateatik, Wolfgang Amadeus Mozarten *Divertimento I* interpretatuko dute. Bestalde, Rodrigo A. de Santiagoren *Barakaldo* pieza estreinatuko dute. Azkenik, Hilario Olazarenen *Txoriak* interpretatuko dute; urretxindorra, zozoa, txantxangorria eta kukua imitatuko dituzte obra honetan. "Hiru obra hauekin ema-

naldia oso erakargarri geratuko da", adierazi du Roldanek.

Solistas de Valenciak *Tradició a l'Escena* ikuskizuna eskainiko du. Dultzaina da ikuskizun horren ardatza, eta Valentziako elementu tradizionalak garaikideagoekin nahasten dituzte, eta emaitza ikusgarria dela azpimarratu dute txistu elkarteko kideek; musika elektronikoa ere erabiltzen dute valentziarrek. "Ikuskizun oso berezia izango da, gomendagarria, eta xelebrea".

Valentziarren bira

Silboberriko kideek Valentzian bertan ezagutu dituzte Solistas de Valenciako kideak. "Han ezagutu genituen, eta beraientzat eredu garririk garelako esan ziguten. Haiek ere instrumentu tradizional batez musika garaikidea egiteko gogoz dabilzala azaldu ziguten". Ensembla eta Mostra Sonora musika garaikidearen jaialdi entzutetsuetan emanaldi bana eskaini dute aurten txistu elkarteko kideek. "Lehenbiziko aldian izan da txistua horrelako



Ensembla eta Mostra Sonora jaialdi entzutetsuetan egon da Silboberri aurten.

Emanaldia 20:00etan hasiko da, San Agustin kulturgunean, eta doakoa izango da

jaialdi batera eraman dutena", adierazi du, harro, Roldanek. Urriaren, ostera, Festival Rafel jaialdian egongo dira, bestelako emanaldi batez. "Ziklo hau oso garrantzitsua izaten ari da guretzat, eta, orokorrean, txistuarentzat", gaineratu du. Kontzertua doakoa izango da, eta,

horretarako, elkarteak ahalegin handia egin behar duela nabarmendu gura izan du Roldanek. "Jendea dei egin gura diogu San Agustineran joan dadin zapatuan. Ikuskizun ona gozatuko dute, eta, gainera, guk ez badugu txistua babesten, norik babestuko du?", amaitu du.



Atera etekina Anbotoren

Gozatu abantaila eta deskontu

A-METZ DEKORAZIOA

-%20 proiektuan, udaleko legalizazioetan eta irekiera proiektuan.
-%20 ideien proiektuan.

BETIXU JATETXEA

- %10 asteburuko otorduetan eta kartan, bariku eta zapatu gauetan.

COLOR PLUS

-%10 tinta- eta toner- kartutxo bateragarrietan.
-%5 tinta- eta toner- kartutxo originaletan.

EPOCA SUKALDEAK

-%10 sukalde nahiz etxeko altzarietan.

EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

-%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.

GIMNASIO ZIRKIN

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.
- Bazkide direnei 10 saioko solarium bonua doan.

HITZ LIBURU-DENDA

-%10 euskarazko liburuetan.

HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

-%15 sarreran.

ITAI ARROPA ETA OSAGARRI DENDA

-%5 lehenengo erosketan.
-%10 erosten den bigarren arropan.

IURRETA KOPISTEGIA

-%10 eskola eta bulego materialean.
-%5 musika, opari eta liburuetan.

KATXARRO JATETXEA

- %10 asteburuetako menuetan.

KIROL ERROTA GIMNASIOA

- Bazkide berriei matrikulazioa doan.

LANDAKO OPTIKA

-%15 eguzkitako betaurrekoetan, audiologian, ikusmen urritasunean, eta armazoi eta lenteetan.

MANCISIDOR 1866 BITXI-DENDA

-%5 deskontua 100€-ra arteko erosketetan.
-%10 deskontua 100€-tik gorako erosketetan.

NATURALKI BELARDENDA-EKODENDA

-%5eko deskontua kosmetika ekologikoko produktuetan.
-%15eko deskontua Colnatur Complex kolageno-magnesio produktuan.

OPEN KLUB

-%20ko deskontua matrikulan. Ez da bateragarria beste eskaintza batzuekin.

PLATERUENA KAFE ANTZOKIA

- Bosgarren gosaria doan.
- Plateruenak antolatutako ekitaldietan leihatilan erositako bigarren sarrera doan.

UNDARRI BIKE

-%10 ski eta snow materialen mantentze-lanetan: zolari argizaria eman eta ertzak zorrotzu.
-%10 bizikletako osagarrietan.

URRIKE LIBURU-DENDA

-%5 liburuetan.
-%10 papergintzan.

UR URDAIBAI

-%25 Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



EUREKA! ZIENTZIA MUSEOA

%10 sarreran deskontua museoko eta planetarioko sarrera orokorrean, bai eta bietarako balio duen sarrera konbinatuan ere.



UR URDAIBAI

%25eko deskontua Anbotoren Lagunarentzat eta horren lagun batentzat Urdaibaiko itsasadarraren jaitsieran, piraguan edo stand up paddle-ean.



HONTZAEXTREM ABENTURA PARKEA

%15eko deskontua sarreran.



Anbotoren lagunak

Lekuan lekuko lagu-

www.anboto.org · lagunak@anboto.org · 946 816 558



Anboto
Komunikabideak



@anboto



@anbotokomunikabideak

“Zuzenekoetan mugimendu asko eta argi gutxi dago; hor erakusten dugu abilezia kameragaz”

Goienkaleko Anttonio's - Gure Toki tabernan 'Rock&ttonios' erakusketa jarri dute Kepa Bordes durangarraren argazkiekin



Kepa Bordes, erakusketako argazkietako bat esku artean duela.

ARGAZKILARITZA • ARITZ MALDONADO
40 Minutu Rock jaialdian Kepa Bordesek (Durango, 1987) ateratako argazkiekin 'Rock&ttonios' erakusketa ezarri dute Goienkaleko Anttonio's-Gure Toki tabernan.

Zer ikusi daiteke 'Rock&ttonios'en?
40 Minutu Rock jaialdiko prentsa taldean egon nintzen, beste bi lagu-

nekin batera. Anttonio's-Gure Toki taberna rock estiloko dela aprobeztatu dugu egun horretako argazkiekin erakusketatxo bat egiteko; Goienkaleko rock estiloko taberna bakarrenetakoa da, gainera. **Zenbat argazki atera zenituen egun horretan?**

Ordubeteko kontzertuak izan ziren, eta talde bakoitzari 300 bat

argazki aterako genizkion. Hortik, bospasei dira erabiltzen direnak. Sermond'sek ere jo zuen egun horretan, eta guztiok Durangaldekoak garela aprobeztatuta, keinu polita iruditu zaigu eurak ere egotea erakusketan.

Bestelako argazkiak ere ateratzen dituzu, ezta?

Paisaiak atera izan ditut, batez ere.

Lehenengo kamera orain hamar bat urte erosi nuen. Kontzertuez gainera, bestelako lanak ere egin ditut musika talde batzuekin; adibidez, Sharon Stoner eta Mocker's taldeekin. Lagun bigaz batera, Arrate estudioa sortu dut (www.rrate.studio). Hasieran paisaiak ziren erronka; orain, ostera, beste erronka batzuk ezartzen dizkiot nire buruari. Zuzenekoetan mugimendu asko eta argi gutxi dago; hor erakusten dugu abilezia kameragaz. Erronka ikastea da, eta denetariko argazkiak ateratzen jakitea.

Egin duzu beste erakusketarik?

Sopelako jatetxe batean eskusketa finko bat dut orain hiru urte baino gehiagotik. Berlinen beste bat egin nuen, hango Euskal Astearen harira. Kontzertuetako argazkiekin egiten dudana lehenbizikoa da hau. Berezia da, gainera, izan ere, Anttonio zena [tabernaren lehenbiziko jabea] nire aitaren lehengusua zen, eta txikia nintzenean rabak jatera etortzen ginela oroitzen dut.

Zein kontzertutan edo festibaletan gustatuko litzazuke argazkiak ateratzea?

Aukeran, Viñarockera joango nintzateke. Ez naiz sekula egon, baina oso gustoko ditut bertan aritu ohi diren taldeak. Argazkilaria legez joatea oso polita litzateke.

Geure Durangaldea

Jon Irazabal Agirre
Gerediagako kidea



Sorginen itzalera

1617ko irailaren 3an Durangaldekoko alkateek Gerediagan bildurik Batzar Nagusia sorginkeriak zekartzan kalteei buruz eztabaidatu zuten eta euren aurkako neurriak hartzea erabaki zuten. Hurrengo batzarretan jarraitu zuten gaia eztabaidatzen eta euren ustez sorginak ziren gizon eta andreen aurkako errepresioa antolatu zuten nahiz eta agintari zibilak eta erlijiosoak, inkisidoreak, ez egon ados euren eskariarekin. Elizak urte batzuk lehenago, “txip”a aldatuz, onartuta zeukan Alonso de Salazar y Frias inkisidoreak Zugarramurdiko epaiketa ostean egindako ikerketa eta txostena. Bertan sorginak ez zeudela eta sorginkeria gizarte ez jakintsu baten mito, beldur eta antzerako egoera baten ondorioa baino ez zela nabarmentzen zen. Hegaldiak eta abar gizon eta andreen kaskezurretako garunetan bakarrik gertatzen zirela.

Gaspar del Hoyo Alberar Durango Merinaldekoko Teniente Korrejidoarekin alkateen eskariarekin bat eginez atxiloketa eta bestelako errepresio neurriak burutu zituzten gure inguruko gizon eta andreen kontra. Eliza, ikuspuntu berrituagaz, ez zen egon prest errepresio gehiago babesteko eta saiatu zen arazoa bideratzen. Helburu horrekin Alonso de Salazar y Frias bidali zuten Bizkaira eta nahiz eta oraindik zenbait gehiegikeria gertatu, lortu zuen 1618an bortizkeriei amaiera ematea.

400 urte igaro ondoren Gerediaga Elkarteak pentsatzen du merezi duela gure historiaren lerro beltz hauek gogoratzea. Baita ere ikusten du urteurren hau momentu egokia dela andre eta gizonen arteko berdintasuna eta pentsamendu, kontzientzia eta sinesmen askatasunaren aldeko aldarrikapen bat hazteratzeko. Ondorioz ekainaren 9an, 12etan, Gerediagako Batzar Zelaian gizarte guztiari zabalik dagoen Merinalde Egunean burutuko du eta bertan Durangaldekoko alkateek eta zenbait agintarik askatasunaren aldeko manifestua sinatuko dute.

Gorka Pagonabarragak jantzi du txapalata koplak txapelketan

BERTSOLARITZA • A.M.

Gorka Pagonabarraga durangarrak irabazi zuen txapalata Durangaldekoko V. Koplak Txapelketan. Elorrioko gaztetxean jokatu zen saioa, aretoa bete zuen publikoaren aurrean; koplalariak eskainitako maila onaz gainera, publikoaren gaztetasuna ere nabarmendu dute

antolatzaileek. Buruz burukora Pagonabarraga eta Eneko Abasolo 'Abarkas' iritsi ziren. Bittor Altube, Txaber Altube, Miren Amuriza, Iruiri Altzerreka, Aitor Bizkarra, Eneko Barruetabeña, Aitor Esteban, Manu Goigana, Unai Iturriaga, Ander Sarriguarte eta Beñat Ugartetxea ere aritu ziren bertotan.



Joan zen zapatuan bertsolariak ateratako argazkia Elorrioren.

www.plateruena.eus

PLATERUENA
Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A
DURANGO
Tel.: 946 030 300
jatetxea@plateruena.net

ORION CHILD + TAKEN + INCURSED
Ekainak 8 · 22:00etan
Kontzertua

NOE ETA ASIER
Ekainak 9 · 20:00etan
Dantza

PUB QUIZ
Ekainak 15 · 21:30ean
Lehiaketa

san agustin kultur gunea durango

ESKERRIK ASKO GUZTIOI!!

2018

urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza

programazioa

Ostalaritza gida

anboto

 Durango



GORA GORA
Arluza kalea, 2 - DURANGO
Tel.: 946 8111 384

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

 Durango



KOBIKA JATETXEA
San Ignazio, 8 - DURANGO

Tel.: 946 810 003
Egile sukaldaritza eta tradizionala.
Menu bereziak eta karta.

 Durango



PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako etorbidea, 4 - DURANGO
Tel.: 946 030 300 - www.plateruena.eus

Bokatak, pintxoak... Azoka egunetan bertako produktuekin egindago menu berezia karpan. Giro paregabea!


 Muxika



ASTEI JATETXEA
Muniketa auzoa 8, MUXIKA
Tel.: 946 732 318

Bataioak, jaunartzeak, ezkontzak...
Enpresa bazkariak. Eguneko menua.

 Durango



IBAIZABAL KAFETEGIA
Ibaizabal taldea, 2A - DURANGO
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.

 Abadiño



ABARKETERUENA
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetako menu bereziak. Goizetik pintxoak.
Giro oso ona.

Lanerako gertu!

2018-2019

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

HERMANTY AT WORK MONDRAGON

LABORAL KUTXA

HETEL

Fp EUSKADI LANBIDE HEZIKETA

M Mondragon Unibertsitatea

 Oñati gestio heziketa

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

75

75 URTEZ JAKINTZA SUSTATUZ
ETORKIZUNA ERAIKITZEN

Izen-ematea

Ekainaren 4tik 15era

Eskaintza akademikoa

OÑATI GESTIO HEZIKETA

MGEP

- Administrazioa eta Finantzak
- Zuzendaritza Idazkaritza
- Salmenta Kudeaketa
- Nazioarteko Merkataritza

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91 • 664 277 592

“Zaleen aupadak asko lagundu zigun eta hurrengo partidu bietan ere behar dugu hauspo hori”

Iurretakok Hirugarren Mailarako igoera faseko lehenengo partidua jokatu du etzi, etxean. Futbol klubak sekula jokatu duen partidurik inportanteena izango da

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Iurretako futbol taldeak bere historiako partidurik garrantzitsuena jokatu du domekan, 17:00etan, Larrakozelaian. Ohorezko Mailatik Hirugarren Mailara igotzeko fasean Gipuzkoako Ordizia taldearen kontra jokatu du. Horren ostean, ligaxkako beste partidu bat geratuko zaio, hurrengo asteburuan, Araban. Ander Zenitagoia taldeko kapitainak jokalariek bizi duten ilusioa azpimarratu du.

Zer dakizue igoera faseko aurkariei buruz?

Ez dugu askorik jakin. Baina abantailatxo bat izan dugu. Igoera faseko lehenengo partidua elkarren kontra jokatu zuten joan zen asteburuan eta horrek bie jarraipena egiteko eta eurei buruz gehiago jakiteko aukera eskaini digu. **Igoera fase arraroa duzue. Dena ez dago zuen esku. Baliteke zuen ahalginak ezertarako balio ez izatea Bigarren B Mailako euskal talderen bat igotzen ez bada.**

Lehenengo geratu gaitezke eta igo ez, edo hirugarren geratu eta igo. Horrela da, bai. Guk gure lana egingo dugu eta Hirugarren Mailako talderen batek lagunduko digun konfiantza dugu.

Durango Kulturala da talde horietako bat. Iurretako talde bat Duran-

goko beste bat animatzen. Benetan kuriozkoa.

Bai, ezta? Conquenserren kontrako kanporaketan, han jokatu zuten partidua internet bidez zuzenean jarraitu genuen, emaitza hark eragiten zigulako. Tira, azkenean lagunak ditugu han. Nik neuk lehengusu bat ere bai, Ekain Zenitagoia.

Baliteke zuek igotzea eta Kulturala ez. Aukera hori posible da. Badakizu horrek zer ekarriko lukeen, ezta?

Iurretakoren eta Durango Kulturalaren arteko derbia Hirugarren Mailan. Badakigu, bai. Polita litzateke. Horrelako derbiak motibagarriak dira beti. Baina, momentuz, eurek igotzea espero dugu.

Sondikan jokatu zenuten ligako azken partidura autobus bete zale joan

“**Durango Kulturalak Conquenserren kontra kanpoan jokaturako partidua internet bidez zuzenean jarraitu genuen**”

zen. Kotxez ere bai batzuk. Zaleen berotasuna sentitzen duzue?

Sondikakoa ikusgarria izan zen. Taldeko asko gazteak dira, urduri zeuden, eta zaleen aupada horrek asko lagundu zigun. Geratzen zaiz-



Ander Zenitagoia
Arbeo
Iurretako futbol taldeko jokalaria
Durango | 1987

kigun partidu bietan ere behar dugu hauspo hori. Zaleen berotasuna zoragarria litzateke, konfiantza itzela emango ligu keelako eta edozein lorpen denok elkarrengaz ospatzeko aukera eskainiko ligu keelako.

Nork esango zizuen urte hasieran Iurretakoren historiako denboraldirik onenaren atarian egongo zinetela.

Urte hasieran beti izaten dugu onenekin ibiltzeko asmoa, Ohorezko Mailan gabiltzan sei urteetan horrelaxe gertatu da eta. Aurten ere jakin dugu talde ona geneukala, baina ez genekien seguru gure sabaia non zegoen. Zorionez, aurten goa inoizko urterik onena izan da eta ilusio handiagaz gaude.

Zelan laburbilduko zenuke zuen ligako jarduna?

Hasieran, hamabost bat partidutan galdu barik egon ginen eta horieta-

ko hamaika irabazi genituen. Segidan, bolada txar bat izan genuen. Sei-zazpi bat partidutan ez genuen irabazi, eta lidertza galdu genuen. Partidu horiek ondoren bideoan ikusita, ez genuen gure burua hain txarto ikusten. Berdin jokatura, aurretik emaitza onak atera genituen. Sarritan ez da erraza horrelako boladen arrazoiak jakitea. Talde gaztea dugu eta, beharbada, esperimentzia falta ordainduko genuen. Azken txanpan berriro partiduak irabazten hasi ginen eta gol asko sartuta, gainera. Azkenean, 52 gol sartu ditugu, inoiz baino gehiago.

Goleatzaileen zerrenda ikusita, ez dago bereziki nabarmentzen den inor.

Gure aurrelariak, goleatzaile pe-toak baino, mugikortasuna dutenak eta langileak dira. Golak banatuta egon dira aurten. Horrek

alde positibo bat du: denok garelak gai golak sartzeko eta ez dugula jokalaria batekiko menpekotasunik. **Kapitainak zer ekarpen egin dio golen zakuari?**

Lau bakarrik sartu ditut.

Bakarrik diozu? Erdilari batentzat kopuru polita da. Area zapaltzen duen horietakoa zara?

Lehenago, gehiagotan heltzen nintzen gora, baina adinagaz gero eta atzerago joan naiz zelaian (barrez). Baina, tira, saiatzen gara. Gol bat penalti bidez izan da, baina, gainerakoak, atzetik helduta.

Jon Gurutz Vazquez entrenatzaileak zer pisu du taldearen lorpenetan?

Handia. Oso profesionala da, asko aztertzen du dena eta horrek eragina du gudan eta gure errendimenduan. Urte askoan dabil taldean eta Bigarren Erregionaletik Ohorezko Mailara eramane du.

Asteko kirolaria



KARMELE GISASOLA ZENIKAZELAIA

Mallabia, Harrijasotzailea

Karmele Gisasola mallabitarrak binakako harri-jasotze txapelketa irabazi zuen Idoia Etxebarriagaz batera joan zen asteburuan, Az-

“Euskal Herriko txapelketan aritzea niretzat gauza handia da eta gogotsu nago”

Binakako harri-jasotze txapelketa irabazi zuen joan zen asteburuan Karmele Gisasolak

peitian. Lehenengoz jokatu zen emakumezkoen binakako harri-jasotze txapelketa eta mallabitarrak garaipena eskuratu zuen gipuzkoarraz batera.

Zelan joan zen txapelketa?

Txapelketa ondo joan zen, egun polita izan zen. Idoia eta biok Segoviako Julia Martinez eta Madrilgo Raquel de la Calleren aurka lehiatu ginen. Kontua da Julia eta Raquel

alterofilia eta crossfit mundutik datozela, eta bagenekien eurak baino indartsuagoak izango girela.

Segoviar bat eta madrildar bat izan zenituzten aurkari?

Orain urte eta erdi inguru harri-jasotze munduagaz interesatzen hasi ziren. Eurekin crossfitean dabilzan mutil batzuek harria jasotzen zuten eta eurek ere probatu gura zutela pentsatu zuten. Or-

duan, Euskal Herrira etorri ziren eta orduz geroztik harria jasotzen dabilta. Izugarria da harria jasotzeko duten grina eta gogoa.

Hilabete barru Euskal Herriko harri-jasotze txapelketa jokatu duzue.

2014tik jokatu gabe dagoen txapelketa da. Aurtengo edizioan Idoiak, Juliak eta hirurok parte hartuko dugu. Idoia da faborito nagusia eta denok dakigu berak jantziko duela txapela. Txapelketan hiru

harrigaz arituko gara: 88 kiloko zilindroagaz, 75 kiloko kubikoagaz eta 63 kiloko bolagaz. Idoiarentzat harri horiek altzatzea piper potoa altzatzea bezalakoa da. Pisu gutxi-ko harriak dira berarentzat. Hala ere, guk geurea emango dugu.

Zuretzat zer suposatzen du Euskal Herriko txapelketan egoteak?

Euskal Herriko txapelketan aritzea niretzat gauza handia da eta gogotsu nago. Momentu honetan, entrenamendu guztiak horretara bideratuta ditugu eta ikusi egin beharko da zelan irteten zaigun.

Herri kirolen munduan nolakoa da emakumezkoen egoera?

Neska gutxi gabiltza eta gehiago behar ditugu. Gura duten guztiak zabalik dituzte ateak.

Salaberria-Aranguren eta Zabala-Alduntzin bikoteek jokatuko dute Biharko Izarrak txapelketako finala

Gaurko lau t'erdiko txapelketako finala Julen Egiguren eta Ander Ruiz de Larramendi gipuzkoarrek jokatuko dute

PILOTA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Biharko Izarrak pilota txapelketako finalak gaur jokatuko dituzte, 19:30ean, Mallabiko pilotalekuan. Binaka, Iker Salaberriak (Goizueta, 1999) eta Aitor Arangurenak (Aginaga, 2000) Javier Zabalaren (Logroño, 1997) eta Aitor Alduntzinen (Iruñea, 1995) kontra jokatuko dute. Antolatzaileek biharko partida borrokatua izango dela aurreikusiten dute; hala ere, Salaberria eta Aranguren ikusten dituzte faborito txapela irabazteko. "Aranguren indartsu dago, eta horrek bikoteari plus bat ematen diola esango nuke", adierazi du Mikel Garciak.

Aurretik, berriz, lau t'erdiko txapelketa jokatuko dute. Finala jokatuko dutenak Julen Egiguren (Azpeitia, 2000) eta Ander Ruiz de

Larramendi (Lazkao, 2000) gipuzkoarrek dira. Garciak azpeitiarra ikusten du faborito partidu honetarako.

Balorazio ezin hobea

Antolatzaileek hamabosgarren edizioaren balorazio ezin hobea egin dute. "Kirol arloan txapelketa oso borrokatua izan da. Azken partidu biak jokatu arte, ez genekien finala zein pilotarik jokatuko zuten", aitortu du Malle Euskal Pilota Elkarteko kideak. Bestalde, ikusleek oso

ondo erantzun dute. Aurtengo edizioak inoizko ikuslerik gehien izan dituela jakinarazi dute antolatzaileek. "Egon dira 250 pertsona baino gehiago batu dituzten partiduak, eta herritarrei finalera joateko deia egiten diegu", bukatu du Garciak.

Besteak beste, Portugal, Bartzelona eta Salamancako pilotari gazteak etorriko dira Zornotzara asteburuan



Biharko Izarrak txapelketako hamabosgarren edizioa da aurtengoa.

Adituaren txokoa

Gotzon Gomez Barrenetxea
Errugbia



Heldu da momentua

Aurreko batean, zutabe honetan bertan, DRTren denboraldia aztertu ostean, oraindik mailari eusteko aukerarik bazegoela aipatu genuen, karanbola askoren menpe bazegoen ere.

Esperotako karanbola hura gauzatu da. Bakarrrik falta zaigu zehaztea nor izango duten aurrean Durangoko errugbilariek.

Alde batetik, VRAC Quesos Entrepinares taldea dugu. Aurtentzako Ohorezko Mailako txapelketa izandako taldearen filiala. Talde gaztea, agian eskarmentu gutxikoa, baina kalitate handia duena. Bidean Bilbo-Universitario Rugby eta Garabi Ordizia utzi ditu kanpoan.

Bestetik, Avileseko Os Belenos taldea, bere ibilbidean RC Ferrol eta Iruñeko La Unica taldeak hartu ditu mendean. Eskarmentu gehiagoko taldea da, etxean indartsua eta kanpoko partidetan apur bat errendimendua jaisten duena. Jokalari atzerritar batzuk ditu.

Aurreko larunbatean jokatutako norgehiagokan Valladolidekoek lortu zuten garaipena, baina lehenengo zatirean amaieran asturiarrak zihozten aurretik markagailuan, 6-18.

Nor izan daiteke aurkari errazena? Halako egoeretan ez da aurkari errazik egoten! Talde bakoitzak bere dohainak ditu, eta, egia esan, berdin dio bata zein bestea egokitzea durangarrek dakitena egiten erakusteko gai badira. Hor dago nire ustez gakoak: sinestea.

Liga amaitu zenetik torneo, lehiaketa eta lagun artekoak jokatuko behar izan ditu DRTk. Baina une erabakiorra heldu zaie, bi final dituzte aurretik mailari eusteko. Larunbatean jakingo dugu noren kontra. Ekainaren 16an eta 23an jokatuko dituzte partidak, lehenengo kanpoan, bigarrena Durangon. Zortea izan dezazuela. Gora DRT!

Kulturalak banako berdinketa defendatuko du bihar etxean

Alcala taldea gaintzen badu, azken kanporaketa bat jokatuko beharko du Bigarren B Mailara igo ahal izateko

FUTBOLA • J.D.

Conquense taldearen kontrako lehenengo kanporaketan, etxean bana berdinduta joan zen Kulturala Cuencara eta han ezin izan zion kanporaketari buelta eman. Oraingoan, Alcalaren kontrako bigarren kanporaketan, Duran-

goko taldea da banako berdinketak eskaintzen duen abantaila duena. Joan zen asteburuan, Madrilen, Ekain Zenitagoiak sartu zuen durangarren gola. Zapatuan, 19:00etan, madrildarrak gutxienez gol bat sartzera behartuta daude Tabiran.



Zapatuan, 19:00etan, hasiko da partidua Tabiran. Luis Iturrioz

Zornotzako hamar frontoi, 350 pilotari gazterentzat

Besteak beste, Portugal, Bartzelona eta Salamancako pilotari gazteak etorriko dira Zornotzara asteburuan

PILOTA • J.D.

Zornotzako Lagun Onak pilota elkarteak Eskolarteko Esku Pilota Topaketa antolatuko du asteburu honetan. Topaketa berezia da, bai batuko duen gazte kantitateagatik, bai Zornotza osoa pilotaleku erraldoi bihurtuko dutelako.

Izan ere, partiduak ez dituzte Amorebieta IV pilotaleku nagusian bakarrik jokatuko. Jauregi-barria, Etxano, Euba, El Carmelo, Karmengo Ama, Lauaxeta, Goiz Eder eta Zubizabalan dauden frontoiak ere erabiliko dituzte.

25 bat esku pilota eskola batuko dira Zornotzan. Durangaldekoak izango dira asko: Atxarte, Olaburu, Oizpe, Lagun Artea, Zaldua, Durango eta Hori Hori, esaterako. Euskal Herriko beste hainbatez gainera, Bartzelona, Valladolid,

Salamanca, Madril, Zaragoza, Errioxa eta Portugalgoak ere etorriko dira, besteak beste.

Kadete mailako eta hortik beherako pilotariak batuko dira. Multzotan banatuta, 12 tantoko partiduak jokatuko dituzte. Ligakako sailkapen partiduak goizetik

Egun bitan 247 partidu jokatuko dituzte guztira 25 pilota eskoletako pilotari gazteek

eguerdira izango dira eta azken fasea arratsaldean jokatuko dute. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, egun bitan 247 esku pilota partidu jokatuko dituzte guztira Zornotzan.

ALDEKOA-OTALORA iturgintza
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA
info@aldekoatalora.com - 692 859 779
Zubiaurre, 8 IURRETA - 946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO - 944 071 791

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak
Betikoak
flexografía
946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA



Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean

HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago baduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztua eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

Durangaldea. Bi logeladun etxe bila nabil Durangon edo Matienan. Lana daukat. Tel.: 632-01 22 61

ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Durango. Bi logeladun etxe bat garajearekin. Olleria kalean. 800€ Tel.: 615 75 80 02

OPORRETAKO ETXEBIZITZAK

OPORRETAKO ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMAN

Durangaldea. Calpen apartamentua alokatzen dut, uztailean eta abuztuan. Sukaldea, egongela, bi logela, komuna eta terraza ditu. Hondartzatik 100 metrora. Tel.: 655-74 57 97

Durangaldea. Apartamentua alokagai Vieux-Boucau herrian Boucanir egoitzan. Tel.: 675-71 93 63

OPORRETAKO ETXEBIZITZAK ERRENTAN HARTU

LOKALAK

LOKALAK SALDU

Durangaldea. 75 metro koadroko bulego bat saltzen dut AMBOTO eraikinean. Bulegoa hornituta dago. Gainera, autobideko sarrera-irteeratik (Donostia-Bilbo) 200 metrora dago. Bulegoak erreperidera ematen du. Prezio onean salgai. Tel.: 608-87 54 86

LOKALAK ERRENTAN HARTU

Durango. Lonja bat alokatzen da San Inazio azunean, 9an. Intsonorizatuta eta ondo hornituta dago. Tel.: 615-75 00 39

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK PERTSONAK ZAINDU

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Barneko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Tel.: 679-53 01 60

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Barneko zein ordukako langilea. Tel.: 611-27 44 51

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Tel.: 610-89 28 39

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Tel.: 612-54 09 97

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentudun mutila lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita baserriak zaintzen ere. Barneko,

kanpoko edo ordukako langilea. Tel.: 632-11 45 93

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo gaueko langilea. Erreferentziak ditut. Tel.: 631-89 17 09

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko, barneko, ordukako zein asteburuetakoko langilea. Lanaldi osoan edo erdian ere lan egiteko prest. Tel.: 632-57 16 20

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Erreferentziadun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 632-75 00 80

Umeak edo nagusiak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua lan bila. Umeak edo nagusiak zaintzen, eta garbiketa lanetan ere bai. Barneko zein kanpoko langilea. Erreferentziak ditut. Tel.: 651-50 86 94

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita atari edo tabernetako garbiketa lanak egiten. Kanpoko langilea, lanaldi osoan edo erdian, osoan edo orduka lan egiteko prest. Tel.: 602-11 06 74

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Neska arduratsua lan bila dabil barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Tel.: 688-80 36 02

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Kanpoko langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Orduka lan egiteko prest. Paperak ditut. Tel.: 722-21 38 29

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Pertsona arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Tel.: 632-39 90 79

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 610-89 28 39

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Pertsona arduratsua eta esperientziaduna lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetakoko langilea, gauez ere lan egiteko prest. Tel.: 632-07 50 13

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Esperientzia dut, baita erreferentziak ere. Espainiako baimena. Tel.: 632-10 22 32

Lan bila nabil pertsona nagusiak

zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Barneko zein kanpoko langilea, gauez, edo lanaldi osoan lan egiteko prest. Eskarmentua dut eta berehala lanean hasteko prest nago. Tel.: 631-86 55 26

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. 40 urte baino gehiago dituen emakumezkoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen eta garbiketa lanetan, barneko langile moduan. Tel.: 603-68 73 62

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan edo sukaldari laguntzaile moduan. Tel.: 632-29 16 73

Umeak zaintzen ditut. Irakaslea lan bila dabil umeak zaintzeko. Tel.: 692-71 66 19

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Baita margolari moduan ere. Tel.: 631-10 47 14

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen zein garbiketa lanetan. Baita sukaldari laguntzaile moduan ere. Kanpoko langilea, gauez, asteburuetan, orduka, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 632-63 24 16

Lan bila nabil. Gizonezkoa lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen, etxeetan zein ospitalean. Baita baserrietan ardiak zaintzen ere. Barneko langilea orduka lan egiteko prest. Tel.: 602-01 61 86

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 650-07 43 07

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Eskarmentu eta erreferentziadun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Kanpoko, barneko edo asteburuetakoko langile moduan. Tel.: 632-07 50 13

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentu eta erreferentziadun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 632-10 22 32

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko, asteburuetakoko edo ordukako langile moduan. Erreferentziak ditut. Tel.: 632-08 98 52

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetakoko langile moduan. Erreferentziak ditut. Tel.: 631-55 81 08

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Pertsona nagusiak zaintzen lan bila

nabil. Baita umeak zaintzen ere. Kanpoko, barneko, asteburuetakoko edo ordukako langilea. Tel.: 632-07 50 13

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa edo plantxa egiten ere. Barneko, ordukako, gaueko edo asteburuetakoko langilea. Berehala lanean hasteko prest. Esperientzia eta erreferentziak ditut. Tel.: 663- 37 51 55

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Tel.: 658-17 23 01

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko, asteburuetakoko, ordukako, lanaldi osoan edo erdiko langilea. Eskarmentua daukat. Tel.: 632-57 16 20

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 688-49 53 88

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko, asteburuetakoko edo ordukako langilea. Tel.: 612-46 03 60

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita atari edo sukaldeetako garbiketa lanetan ere. Tel.: 602-11 06 74

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. Tel.: 643-13 01 20

BERBARO ELKARTEAK KUDEATZAILEA BEHAR DU

EZINBESTEKOAK:

- Euskara maila oso ona.
- Goi-mailako ikasketak.
- Taldeak gidatzeko gaitasuna.
- Harremanetarako eta taldean lan egiteko gaitasuna.
- Gida baimena eta autoa izatea.

BALORATUKO DA:

- Kudeaketa ekonomikoan eskarmentua izatea.
- Durango eta Durangaldea ezagutzea.
- Diseinu grafikoan moldatzea.
- Sare sozialak eta webguneak kudeatzen jakitea.

Bidali curriculum eta aurkezpen gutuna:
Helbidea: berbaro@berbaro.eus
Epea: ekainaren 24a baino lehen.

karmentua daukat. Tel.: 691-14 17 39

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak eta umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea, gauez edo orduka lan egiteko prest. Eskarmentua eta erreferentziak ditut. Tel.: 631-60 94 09

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentudun langilea lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko edo kanpoko langile moduan. Tel.: 632-10 22 32

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 612-57 41 37

Arratsaldetarako lan bila.

Esperientzia handiko eta erreferentziadun neska euskalduna arratsaldetarako lan bila. Umeak zaintzen, etxeko lanetan, Tel.: 688 640 604

Udarako lan bila. Uztail arratsaldetarako eta abuzturako ume-zaintzan lan bila nabil. Neska gaztea, euskalduna, esperientziaduna. Tel.: 688 640 604

Umeak eskolara eramane. Elorrioko emakume euskalduna eta esperientziaduna goizetan haurrak esnatu, gosaltzen eman eta eskolara eramateko prest (Elorriortan bertan). Tel.: 658 759 264

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko langile moduan. Esperientzia daukat. Tel.: 663-98 37 78

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil barneko langile moduan pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 632-89 05 16

LAN ESKARIAK IRAKASKUNTZA

Klase partikularrik ematen ditut. Irakaslea lan bila dabil klase partikularrik emateko (ikaslearen etxean) Tel.: 692-71 66 19

LAN ESKAITZAK

LAN ESKAITZAK OSTALARITZA

TABERNARI LAGUNTZAILEA. Zaldibarren tabernari laguntzailea behar dugu. Gutxi gorabeherako orduetgia Goizez (zapatua eta domeka): 12:30-15:00 Gauez (barikua eta zapatua): 19:30-23:00 interesatuak deitu: Tel.: 647 268 863

ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK

ETXERAKO TRESNAK/ALTZARIAK SALDU

Hozkailua saltzen dut. Eurotech C558 A+ markako hozkailua salgai. Egoera onean. Prezioa: 100 euro. Tel.: 605-72 73 91



Botikak

BARIKUA, 8 - 09:00-09:00

BALENCIAGA

Berrio-Otxoa 12 - **ELORRIO**

GOIRIA, MARI CARMEN

Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 9 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN

Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

BALENCIAGA

Berrio-Otxoa 12 - **ELORRIO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

SAGASTIZABAL

Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

EGUREN, ISABEL

Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

JAIO-OLABARRIETA

Errekakale 6. - **ELORRIO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 10 - 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

GOIRIA, MARI CARMEN

Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 11 - 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 12 - 09:00-09:00

ETXEARRIA

Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 13 - 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 14 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

MELERO, ROSA MARI

San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENKO 14:00AK ARTEKO EPEA



Zorionak, **Luzia** zure bosgarren urbetetzean. Egun polita eta alaia izan! Zure gurasoak Unai eta Izaskun, Eder, Irati, Endika, aitteite Karlos, amama Enkar-na, aitteite Ramon, amama Begoña eta beste senideen partez.




Ekainaren 9an **Enarak** 7 urte beteko ditu. Zorionak poxpolin familiako danon partez! Jarraitu horren jatorra eta alaia izaten.



Zorionak, **Asier** guraso eta aiton-amonon partez. Egun ona pasa dezazula.



Zorionak lauroi Matienako lagunon partez.



Zorionak, amatxo! Konturatu orduko zure eguna heldu da, eta oparirik gabe harrapatu gaitu. Hala ere musu pila bat eta ondo pasa eguna.... Hamaika laztantxo etxekoan partez!



Zorionak, mutil handi! Lau urte egin dituzu bazterrak nahasten, beti mai-tagarri! Mosu potoloa maite zaitugun guztion partez!



Zorionak, **Aretx**, ja 7 urte ...



Zorionak, **Peio!** Maiatzean 21 urte bete zenituen. Segi horrela, alaia, jatorra eta arduratsua izaten. Musu potolo bat maite zaitugun guztion partez.

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.



clínica dental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA ETA ESPEZIALITATEAK
08:00etatik 21:00etara ZABALIK

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS: 145-13

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com - inmoduranguesado@gmail.com



68,88 m²

2 logela

ASKATASUN ETORBIDEA:
68,88 m² . 2 logela (lehen 3) egongela, sukalde-jangela, bainugela eta balkoia. Berogailua, igogailua.

Prezioa zuzenduta

177.000€/Neg

“Japoniagaz lotutako guztiak txikitatik erakarri nau; irrikan nago hara joateko”

Erika in Blue izenagaz ezagutzen dute sare sozialetan dituen milaka jarraitzaileak. Moda blogaria den gazte zornotzarrak oso gustuko du manga edota anime pertsonaien antzera janztea.

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Bideo-jokoak, moda, argazkigintza eta makillajea ditu pasio sare sozialetan Erika in Blue lez ezaguna den gazte zornotzarrak. Kultura Ondasuna Zaintzeko eta Zaharberitzeko ikasketak amaitzen ari da, baina sare sozialetan eta moda munduagaz lotuta ikusten du etorkizuna kultura japoniarraren zale amorratua den youtuberrak. Interneten dagoen informazio guztia sailkatzen jakin behar dela uste du.

Zure ilearen kolorea da zure ezaugarria. Aldatuko duzue inoiz?

Gustatuko litzaidake! Baina apur bat zail daukat. Ilea pilo bat koloretakoa izan gura nuke.

Instagramen 50.000 jarraitzaile dituzu eta youtuben 42.000 inguru. Nola hasi zinen honetan?

Betidanik gustatu zait moda mundua eta Instagram bitartez horretan lan egiteko aukera zegoela jakitean hasi nintzen, orain hiruzpalau urte. Argazkiak ateratzen hasi ginen. Gustatu, eta blog bat sortzea erabaki nuen. Honetaz bizitzea gustatuko litzaidake, hori dut helburu.

Gero etorri zen youtube?

Denek galdetzen zidaten nola tindatu nuen ilea, nola lortzen nuen urdin hau, eta blogean idatzita azaltzea ezinezkoa zitzaidanez, youtuberako bideo bat grabatzea pentsatu nuen. Askori gustatu zitzaien bideoa eta aurrera jarraitu nuen. Hasieran, barbarik egin gabe, musikagaz bakarrik egin gura izan nuen bideoa. Oso lotsatia naiz-eta...

Lotsatia youtuberrea izanda?

Baliteke. Gelan bakarrik nagoela grabatzen ditut bideoak. Horrek ez dit arazorik sortzen, baina pertsonen aurrean... Pixka bat terapia lez hasi nintzen youtuber, eta hala jarraitzen du izaten oraindik. Baina ez du asko funtzionatzen. Bakarrik egon behar naiz grabatzen.

Espero zenuen halako arrakastarik?

Ez nuen espero, inondik inora!

Gero eta youtuber eta influencer gehiago daude. Nola lortzen da arrakasta?

Ez dakit! Egia da gero eta gehiago garelako eta gero eta zailagoa dela jarraitzaileak lortzea. Igotako edukien arabera, egunak daude.

Baduzu erreferenterik?

Asko gustatzen zait Luana, adibidez. Youtuberra baino, blogaria da estatubatuarra, influencerra. Gogoko dut bere estiloa eta hortik bizitzeko aukera du; oso zaila da hori. Marka batzuekin egin dut nik lan: batzuek ordaindu egiten dute promozionatzeko, beste batzuek produktuak bidaltzen dizkizute doan. Markekin lan asko eginez gero, eta ondo ordainduz gero... bizi daiteke hortik.

Bide luzea duzu egiteko...

Bai! Hortik bizi direnek 200.000 jarraitzailetik gora dituzte. Hala ere, gaur egun edonork erosi ditzake jarraitzaileak, eta markak bizkorrago dabilta, jarduera ikertzen

dute: zenbat 'like' dituzun, oso aktiboa zaren, jarraitzaileak...

Zenbat denbora ematen duzu egunean sare sozialetan?

Asko! Oso aktiboa izan behar da eta denbora

asko eskatzen du. Ezinbesteko laguntzaile

du. Dani, bikotekidea.

Zein da zure proposamena?

Vintage-a da nire

estiloa,

kutsu

japo-

niarragaz apur bat alternatiboa.

Zaila zait definitzea. Bakoitzak

gustuko duena jarri dezala, besteei

begiratu gabe.

Kultura japoniarra gustatzen zaizu?

Asko! Japoniagaz lotutako guztiak

txikitatik erakarri izan nau. Ez naiz inoiz han egon, eta irrikan nago hara joateko.

Comic-con jaialdian egon zinen Gibraltarren. Nola joan zen?

Oso ondo! Blogaren esperientzia

kontatzeko gonbidatu ninduten

komikiaren edo 80ko hamarkadako

estiloaren zaleak

batzen dituen jaialdira.

Star Trek edo Marvel

leko komikien jarraitzaileak aukera dute

aktoreak eta marrazkilariak ezagutzeko.

Pop kultura hori batzen da, hainbat arlo

ukituta. Manga aretoaren antzekoa da.

Cosplayer-a —manga edo anime pertsonaien antzera janzten dena— ere bazara?

Ez naiz cosplayer-a, ez maila profesionalean, baina asko gustatzen zait

mozorrotzea. Filmen estreinaldietara gonbidatzen dituzte argazkietarako, giroa berotzeko... Itzela da! Frantzia oso ezaguna den Lili on the Moon egon zen

Gibraltarren. Senarra Capitan Amerikaren doblesa da han.

Ematen duenez, youtubek aurrea hartu dio telebistari?

Bai. Youtube ikusten dute gazte

txoek. Gustuko dutena momentuan ikusten dute, ikusi gura ez dutena baztertuz. Hori da etorkizuna. Telebistak youtubeko eta youtuberrren formatu asko hartu ditu; amu moduan erabiltzen dituzte youtuberrak, adibidez, filmetan bigarren mailako paperak emanaz. Hala ere, informazio asko dago interneten, sare-sozialetan, eta dena ez da egia. Sailkatzen jakin behar da.



Erika Palacios Ordoñez
Moda blogaria eta youtuberra
Zornotza | 1995

Lauhortza

Ainhoa Olaso Sopelana
Ikaslea



Aditu bihurtuak

(Demagun hurrengo hau euskaraz gertatzen dela eta ez dugula gaztelaniara itzuli behar izan) Egund on, zure nortasun agiria, mesedez (ez digu mesedez eskatu, baina seguru gehienetan eskatzen duela). Salaketa bat jarri nahi duzu horregatik? Nik ez ditut legeak egiten, eta ez diot horrekin ados nagoenik, baina ez dut uste hori salagarria denik (harrerako langileek epaile lanak egiteko baimena izatea ez da oso sinesgarria, baina nola kalkulatu daiteke zein botere ematen duen uniforme batek?). Indarkeria sexistan aditua den talde bat dago, bai. Pixka bat itxaroten baduzu abisatuko diet (eskerrik aurretik lagunak talde honen berri eman digun, harrerako langileak hasiera batean ez du buruan izan eta ia salaketa jarri gabe joan gara etxera).

(Hemengo emakume langile guztiak deskantsuan egongo dira kasualitatez) Non izan zen eraso? (berari egun onak beste norbaitek emango zizkion, eta salaketa jartzera datorrena ondo dagoela agerikoa izango da, ez dio galdetu ere egin-eta nola dagoen...). Eta zu zergatik egon zinen han? Ziur zaude atzetik heldu zintuenen ez zuela aldamenen zenuena lapurtzeko asmorik? Drogatuta zeunden? (konfiantza tonua erabiltzearen puntua ez zuen ondo ulertu aditu bihurtzeko irakurri behar izan zuen txostenean).

Ez dut uste berriz gertatuko denik, baina, bestela, deitu larrialdietara, hemen daukagun telefonoa ez baita batere eraginkorra (konfiantzazko giroa sortzen ere kale egin du). Bueno ba, hurrengora arte.



DURANGALDEKO HELDUEN HEZKUNTZAKO IKASTETXEA
CEPA DURANGO HHI
Doako irakaskuntza ofiziala

Laubideta kalea, 6 DURANGO · Tel.: 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net



IRAKASKUNTZA ARAUTUA

- Atzerritarrentzako gaztelania eta euskara ikastaroak.
- Hasierako irakaskuntzak.
- DBHko graduatua.

IRAKASKUNTZA EZ ARAUTUA

- Unibertsitaterako sarbide probak.
- Goi mailako zikloetarako sarbide probak.
- Informatika ikastaroak.
- Ingelesa, frantsesa (hasiera maila).



MATRIKULA ZAITEZ - 946 814 253
www.epadurango.hezkuntza.net

MATRIKULA-EPEA: Ekainaren

15etik ekainaren 29ra.

Matrikula egiteko ordutegia:

Astehenetik ostegunera: 09:00-13:00/16:00-19:00
Ostiralean: 09:00-13:00